

Nikolas Ormaetxea «Orixe»

**TORMESKO
ITSU-MUTILLA**

Fitxategi hau "liburu-e" bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Tormes'ko itsu-mutila*, Nikolas Ormaetxea
Orixe. Verdes Atxirika, 1929

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00231.htm>

*Arturo Campion Yaun
bizien artean
euskalzalerik zaarrenari,
egilleak
opari apur au
biotzez eskeinten deutso.*

ITZAURREA

Ondo deritxot, onen gauza ezaugarriak eta, urrian, iñoz entzun ez ta ikusi ezak askori adierazotea, ta ez aitzu-obian lurperatzea; ba leike bada, norbaitek irakurriz atsegiñ artzea, ta irakurgai sakon-bila ez dabizanai atsegiñ oemotea. Ari ontara diño Pliniok, ez dala libururik, txarrenik bere, zerbait onik ez dabenik; izan bere, nok bere agoa izaten dau ta. Batak yan gura ez dabenera, bestea itoa da, ta orobat osterantzeko gauzetan. Olan adierazoten deusku Pliniok, ezer ez daitela apurtu, ez txarto artu, oso iguingarri izan ezik; eta kaltegarri ezpada, ta ezer onik atara ba leike, azaltzeko.

Osterantzean oso gitxik idatziko leukie baka-rrarentzat, neke litzake bada; ta lana egin daben ezkeron, saria gura dabe, ez dirutan, euren lanak ikusiz eta irakurriz baiño; eta merezi ba dabe, izena aitatus. Augaitik diño Tuliok: «ospeak sortzen dauz eder-lanak». Nork uste, lenen-maillan doan gudariari bizitza iguingarriago yakola? Ez beintzat; izen-gureak daroa arriskura. Orobat

yazoten da idazti ta eder-lanetan. Praille letraduak itzaldietan ondo ba diardu, ta arimen ona gura ba dau, Asarratuko al da egundoko ederto diardu berorrek esaten ba deutsoe? Alako jaun batek zaldi-guduka barregarria egin eban, eta barritxuari gudu-yantzia omon eutson, guztiz ondo egin ebala esan eutsolako. Zer emongo, egia izan balitz?

Eta onan da guztia. Ni auzokoak baiño obea enazala autortuaz, etxat damutuko mordolloki idatziriko uskeri onetaz, irakurle guztiei atsegiten ba deutse, gizon bat olango zorion-zoritxarretan bizi izan dala ikusita.

Artu begi, arren, yauna, eskiñi urri au, nire guraria al-izateaz bardin balitz, aberatsagoa litzake ta. Eta berorrek luzaro yarduteko idazten deustan ezkerro, erditik ez baiño asieratik ekingo deutsot, nire ezaguera zeatza izan dagian. Gane-ra, yatorriz aiton-sume diranak, gomuta begie ze gitxi zor yakeen, zoria euren alde atara zalako; ta asko geiago egin ebela, zori etsaia izan arren, euren ganora zala bide, arraunka legorrera onez urten ebenak.

LELENGO YARDUNA

Lazaroren bizimodua; noren semea zan

Yakin begi bada aurrenik, ni Tormesko Lazaro naritxeela, Tome Gonzalezen eta Antonia Perezen semea, Salamancako Tejares deritxon goierri batekoak biok. Ni Tormes ibaian barruan yaio nintzan eta augaitik naritxee gatx-izenez Tormes. Nere yaiotza olan izan zan. Nire aita, Yainkoak parkatu begio, ibai aren ertzean dagon bolu edo errota baten errotari izan zan amabost urtez, eta astaria gertuteko biargintza eukon. Nire ama neu sabelean azur nenduala, seinmiñak artu eban eta an erditu nindun: beaz esan dagiket ibai-erdian sortua nazala.

Ara bada, zortzi urteko nintzala, nire aitari bota eutsoen, errotara zetozanen zaku-saietsetan zan-ebaketa batzuk egin ebazala, ta augaitik preso artu eben. Autortu eban eta ez eban ukatu, ta zuzentasunagaitik larrialdiak igaro ebazan. Gure Yainkoak zeruan izango al dau, Eban-gelioan olangoak zorioneko izentau oi dira ta.

Garai atan moroen aurka gudari-talde bat gertu zan, eta nire aita eurekaz yoan zan. Bitartean atzerriraturik egon zan, zan-ebaketagaitik, eta ango erriko nagosi baten mandazain zintzo zala, il zan gizagaxua.

Nire ama alargunak, laguntza bagarik bere burua ikusita, jente onagana batutea erabagi eban, euretako bat izateko. Urira etorri zan bizitzera ta etxe bat alogeratu eban, eta ikastun batzuei yatekoa onduten asi zan, eta Magdale-nako komendadorearen zaldizain batzuen yaatzia garbietan. Kortarik korta ebillela, alango zaldi-zain baltz bategaz ezaguera artu eban. Au noz edo noz etorten zan gure etxera, ta goizean aldegiten eban. Beste batzuetan egunez etorri oi zan, arrautzak erosteko txutxuagaz, eta etxean sartu oi zan. Nik aurrenetik bildur neutson kolore ta egite zatarra ebazalako: baño a etorriagaz, bazkari ohea zan etxean, eta maite artuten asi nintzan, ogia ta okelea, ta neguan berotuteko egurra edo zeozer beti ekarten ebalako. Ostatua ta autueta zala-ta, nire amak sein baltx bat ekarri eban. Agaz olgetan eta beroketan ebilten nintzan. Beinola, nire aita-orde baltzak morroxkua-

gaz lanean iñarduela, morroxkuak ama ta ni zuriak gintzazala ta bera baltza zala ikustean, aitagandik iges egiten eban, eta atzagaz erakutsita iñoan: ama «momua» Erantzun eban aitak: dollorkumea!

Ni, gaztetxua izanik bere, oartu nintzan anaitxuari esan eutson itzaz, eta esan neban nire artean zenbat ete dira munduan bestegandik iges dabizanak, euren buruak ikusten ez dabezalako.

Zorionez, Zayde eritxon jaun aren izketa, mutil-nagosiaren balarrietara eldu zan, eta ondo azterturik, oartu eben, zaldizkoentzat emoten eutsoen garagarratik, erdits bat lapurtu egiten ebala; baita zai ta egur ta txarrantx burusi ta isara, galdu ebazalakoa egin oi eban, eta besterik ez ebanean, zaldizkoai perrak kenduten eutsezan. Olan lagunduten eutson nire amari, nire anaitxua azten.

Abade ta praille, batak txiroai ostuten deute, ta besteak etxetik atsotxuentzat ataraten dabe. Ez gaitezkan bada arritu, otsein oneri maitasunak eragiten eutsolako.

Geiago be egiten ebala agertu zan. Niri zemaika itanduten eusteen eta nik umetxu onek, bildurrez dana aitortuten neban, baita zelan perra batzuk saldu neutsozan sugille bati, nire amak aginduta.

Nire aita-orde gizagaxua, zigorkatu ta esegi egin eben, eta amari epai-aginduz ori diran eun zigorkadak emonda agindu eutsoen, sekula etzeitela sartu komendadorearen etxean, eta Zayde, ondo yorratua, etzegiela etxean artu.

Pertzaren atzetik sokea ez botatearren gaxoak epaia bete eban, nekez ba da bere. Ta galzoria aldendutearren, eta esabiderik ez emotearren, Solana yatetxean bizi ziranen ogipeko sartu zan. An, gorriak ikusiz, azi zan nire anaitxua oiñez asi arte, ta ni bere an garatu nintzan, etxe-ko arrotzei arda ta argizari ta agintzen eusteen a ekarteko gauza nintzan arte.

Beiñola, arrotz-etxe onetara itsu bat eldu zan, eta ni aren aurrekotzat aukerakoa nintzala-koan, eskatu ninduan, eta amak agindu egin eutson, gizon on baten semea nintzala, Gelveetan siñistea goratzearren galdu zala, ta ni enitzala gaiztoagoa izango Yainkoak onez, eta arren,

ondo jardun nengiola ta zaindu nengiola, umezurtza nintzalako. Baietz agindu eban, eta mutiltzako ez baña semetako artzen ninduela, nagosi barri zar aren otsein eta itsu-aurrekotzat.

Egun batzuk Salamancan eginda, nire nagosiak naikua irabazten ez ebalakoan, andik aldegittea erabagi eban, eta aldegitzekoan, ni ama ikusten yoan nintzan, eta biok negarrez giñarduela, bedeikapena emonez esan eustan:

«Seme, ez aut geiago ikusiko. Ona izan adi, ta Yainkoak ondo auala. Azi aut eta nagosi onaren otsein itzi: zintzoa izan».

Eta nogisiagana yoan nintzan: nire begira egoan.

Urten gendun Salamancatik, eta zubira eldu giñanean, sarreran arrizko alimali bat dago, zezena lakoa. Itsuak agindu eustan urreratuteko, ta ara nintzanean esan eustan: «Lazaro, belarria ezarri egik zezen orrengana, ta barruan zarata aundia entzungo dok».

Nik alan egin neban, egia zalakoan. Burua arri-ondoan neukola itsua oartu zanean, eskua-gaz gogor elduta egundoko kaskarrekoa emon eustan, zezen deabruagaz. Iru egun eta geiagoo-

ko oñazea izan neban eta esan eustan: «Zoróa, ikasi egik: itsu-aurrekoak deabruak baño apur bat geitxuago yakin bear dok».

Eta barre egin eban, gogoz.

Orduantxe iduri yatan nire kokotasunetik atara nintzala, aurtxua lez lo egonda. Esan neban neure artean:

Egia diño onek, begia zoli eukitea komeni yatala ta gertu egotea, bakarra naz bada, ta kon-tuak atara bear dodaz.

Ekin geuntson bideari ta egun gitxi barru irakatsi eustan gitano-berbetia. Ta ni buru-zolia nintzala ikusita atsegiñ andia artu eban eta iñoan:

«Nik urrerik ez zidarrik ezin emon dagikeat, baña bizi-modurako argibideak bai asko».

Ta alan izan be. Yainkoaren urrena onek emon eustan bizia, ta itsu izanik argi egin eustan eta trebetu nindun bizibidean.

Umekeri auk adierazoten deuntsodaz berorreri, yakin dagian, ontasun andia dala gizon bat apala izanik igotea, ta goien egonik, zer oker dan beeratutea.

Itsu gizagaxoari gagozala, yakin begi berorrek, Yainkoak mundua egin ebanetik ez ebalalako ume azeririk egin. Bere biargintzan arranobegia eban. Eun eta geiago otoitz, buruz ekizan. Azpi-azpitik, astiro, ta ozen errezetan eban, Elexa osoa dardar eragiala. Aurpegi apal eta elizkoia; otoitz egiten ebanean ez eban kiñurik eta mosu-okertzerik egiten beste zeinbatzuek lez.

Onetzaz ganera ba ebazan beste milla alderdi, dirua atarateko. Oraziño asko omen ekizan gauz askotako: erdi ezin ziran andreentzat, seingiñean ziarduenentzat; gaizki ezkonduentzat, senarrak maite izan zegizen. Seindunai igarkizuna esaten eutsen, semea ala alabea ete eben barruan.

Osagillezkoan, Galenok be, berak eutsonez, ez omen ekian berak adin bat, zorabioetan eta ama-gaitzetan. Azkenik, nok ze gaitz eban, bertan asmatu oi eutson:

«Au egizu, beste au egizu, olango bedar artu izu».

Oinbestez, mundu guzia aren atzetik ebillen, batez be andrazkoak, eta arek esanala egin egiten eben. Andrazkoengandik onura andiak atara-

ten ebazan, eta ilebetean geiago irabazten eban, eun itsuk urtebetean baño.

Yakin begi berorrek, oinbeste diru bilduta bere, enebala ikusi sekula aen gizon zikoitzik eta zuurrik. Beti goseak ilten nendukan eta bear nebanaren erdirik bere ezeustan emoten. Egia, nire maltzurkeri ta azerikeria lagun izan ezpau, askotan il nindun goseak. bere yakite ta zuurtasun eta guzti, azpi-yana egiten neutson, arik eta zatirik obeena beti edo geienetan neuganatzeraño. Onetarako deabrukeri batzuk egiten neutsozan, ez oso neke baga. Batzuk kontauko deutsudaz.

Eun-zorro batean ekazan ogi ta ganerako, ta zorro orren aboa burni-ustai bategaz itxiten zan eta zildiz eta giltzagaz. Gauzak sartu-atara egitean aen arduraz iñarduen eta banan banan, ezpaitzan munduan gizonik, apur bat kenduko eutsonik. Niri emoten eustan uskeria, bi ozkadatan iruntsiten neban.

Zorro-zilda itxiten ebanean eta aztuten yakonean, ni bestetara adi nengoalakoan, zorroak eukon yoskura batetik (berak sarri yosi ta urratu ei eban yoskuretik) odolustuten neban zorro

zikoitz a, ogi ta urdai ta lukainka-zati ederrak atareaz. Eta itsu gaiztoaren zuloa bardinduten alegiña egiten neban.

Imurtxi ta lapurtu al zegikena, txuri-erdietan eroian, eta errezetako aginduta, txuria emoten eutsoenenan, itsua baitzan, emoten eutsonak kiñu egiterako, nik aboan barruan sartzen neban, eta txuri-erdia gerturik neukon, arek eskua luzatu baño len, ordeztu emoteko. Espaz egoan itsu gaiztoa, ikutu utsez ezagutzen eban txuri osoa etzala-ta. Iñoan: «ze deabru dok au? nigaz abillen ezker ezeustek emoten txuri-erdirik baño, ta len txuri osoa ta marabiri bat askotan emoten eusteen. Ire errua ei dok».

Berak ere otoitza laburtu egiten eban eta erditaraiño be ez eban esaten. Agindu eustan, dirua omoten eutsonak aldegiten ebanean, soñeko ertzetik tiretako. Nik alan egiten neban. Eta gero oiuka iñoan: «Alako ta olako otoitz egi-teko diño».

Alboan ardau-pitxar bat euki oi eban bazkal-tzekoan. Nik elduten neutson arin, eta bi mosu ixil emon-ostean, bere tokian izten neban. Ez luzaro. Edatean ezagutu eban palta zala, ta bere

ardaua seguru gordeteko pitxarrari belarririk eusten eutsen, beiñere itzi baga. Burdin-biziak ezta ezer bereganatzen, neuk lasto-izpi bategaz arda a baizen ondo. Sartuten neban pitxarra aboan eta itzungi egiten neban pitxarra, gabon esanda. Baña aen maltzurra ta azeria zan, oartu edo zan, eta aurrera asmua aldatu egin eban, eta ankartean imiñi eban eta eskuaz tape-tan eban, eta alan nasai edaten.

Ni ardauari yarria nengoan eta itotzen nengon ardau-gura. Lasto-izpiaz ezin baliatuta pitxarrari zulo estu bat egiteko asmua artu neban, eta polito polito argizari-ttalo me-meaz itsututea, ta bazkal-orduan, otzak nengoala-ta, sartzen nitzaion ankartean, zu apurraren ondoan bertzeko. Argizari apurra urtuten zan beroaren berroz, eta asten zan iturritxua tantaka nire abora, aratean neukola, ta on dakiola galtzen zan tantari! Gizagaxuak edaten yoianean, pitxar utsa aurkitzen eban.

Arritzen zan, biraoka asten zan, gaitzesten ebazan pitxarra ta ardaua, zer izan legikean yakin barik.

«Ez esan, osaba, nik edaten dodanik, nirautson, eskutik eztozu izten-da».

Eskuetan itzuli ta irauli ta aztamu, atzenik aurkitu eban iturria, ta ezagutu eban nire iseka; baña ez-ezagunena egin eban.

Biaramonean, nire pitxarra edoskitzen niarduela, ze gaitz etorriko yatan uste barik, eta itsu gaiztoak sentizen ez nindualakoan, yazarri nintzan, beti lez, tanta areik biltzen nebazala, arpegia zerura begira, begiak erdi-itxiak gustu obea artzearren. Orduantxe nigandik aserrekundea artu bear ebala otu yakon itsu gaiztoari, ta bere indar guztiaz, bi eskuekaz pitxar goxo ta garratz a goratzen ebala yaurti eustan abora indar gutiz. Lazaro gizagaxua ardura barik nasai egoan alangorik bururatu baga, ta oraingoan zerua ta izartalde guztia nigana yausi zala iduri yatan.

Alako kaskatako ta alako pitxar-kaldiak kordebaga itzi nindun. Pitxar-puskak aurpegian sartu yatazan toki askotatik, eta aginak apurtu eustazan. Ordu ezketiño, ain barik nago. Andik aurrera gorroto artu neutson itsuari, ta maite ba ninduan bere, ta atsegin eta losentxa egiten ba eustan bere, ezagun zan neure ezbear gogorraz

poztu zala. Ardauz egin eustan arpegiko osaketa, eta barreka iñoan:

Zer deritxok Lazaro? Gaitz egin yeutseanak berak «osatuten au». Eta olango ateraldiak eban, ez nire atsegiñekoak.

Nire odoleri ta zigorralditik osatutxu nintzanean, alango takateko gitxigaz itsuak galduko ninduala ta, neuk bera galdutea asmau neban. Baña astiro artu neban eginkizun ori, seguruago egitearren. Nik biotza ibitu nai ta pitxar-kaldia parkatu nai ta bere, ezin negiken, itsu gaiztoak andik aurrera emoten eustan yardunaz. Zio barik, niri kaskarrekoa ta ule-tiraka ziarduen. Eta norbaitek esaten ba eutson zegaitik alan yokatzen zan nigaz, berelaxe kontetan eutson pitxarrarena.

«Uste al dozu, mutil au kokoren bat dala? Deabruak bere, asmauko ote leuke olango egite-rik?».

Entzuten ebenak ziñatuta iñoen: «nok usteko eban mutiltxu orrek olako txarkeria egingo ebanik?» Eta barreka iñoen:

«Zigorra, zigorra orri, Yainkoak ordainduko deutsu-ta». —Berak ez eban besterik egiten.

Nik ostera, biderik txarrenetik neroian berariz, gaitz egitearren: arririk ba zan, areeen erditik, lokatzik ba zan, andienetik. Ni sikuenetik ezpaniñoian bere, gurago neban neure begi bat galdu, bapere ez ebanari biak galtzearren. Augaitik makilla-muturragaz ikutzen nindun aldioro garondoan, eta berau kankailuz beterik eta soildurik neukon aren atzamarraz. Nik zin egiten neutson, enebala gaiztakeriz egiten, bide obea aurkitzearren baño, ta ezeustan siñisten, eta ezeustan balio. Alako sena ta adimena eban maltzur arek.

Eta aren buru-zolitasun noragiñokoa zan berorrek ikusi dagian, kontatuko deusot yazotako bat. Beste askoren artean orrek adiarazoko deutso aren maltzurkeria. Salamankatik urten gendunean, Toledorako asmua artu eban. Ango jentea aberatsena zala iñoan, emole ona ezpazan bere. Esan zarrari egoin: Billuziak baño gogorrek geiago emoten dau. Biderik obeenetik eldu giñan ara. Abegi ona ta irabazi ona egoan lekuan an geratzen giñan, ta ez eguan lekuan irugarren egunerako ango bearrak egiten genduzan.

Almoroz deritxan toki batera eldu giñanean, maats-batzen ziarduen, eta maats-batzale batek mordo bat emon eutson limosnatzat. Aro artan otarruak etendurik baitagoz, eta maatsa elduegia egoalako, eskuetan aletuten zan; zorroan sartzetako mustio biurtuten zan, bertara sartzen ba zan.

Oturuntza bat egitea gogora yakon, berak mats-mordoa ezin eroan ebalako, ta niri atsegin emoteko: egun artan belaunkada asko emon eustazan bada, ta ukaldi asko. Yezarri giñan bada esi-albo batean, eta esan eustan:

«Oraintxe zabal yokatu bear ddoat igaz: biok yan bear ddoagu mats-mordo au, eta nik beste ik. Onelan banatuko ddoagu. Ik zimiko bat egingo ddeutsok mordoari, ta nik beste bat, baña agindu bear deustak garau bat baño geiago ez dokala yaulkiko. Neuk bere ori egingo ddoat, eta onelan etxagok amarrurik».

Itun au eginda asi giñan, baña bigarren eldualdian asmua aldatu eban azeri arek, eta binaka asi zan, neuk bere ori egiten nebalakoan. Berak itza yan eban ezkerro, ni enintzan asetuten beste ainbeste egiteaz, eta areago egiten neban: bina-

ka ta irunaka garauak yaten nebazan, al neban lez. Mordoa amaitutakoan, egon zan alditxu batez zuztarra eskuan ebala, ta buruari eragiñez esan eban:

«Lazaro, atzipetu egin nok. Egingo neukek, garauak irunaka yan dokazala. Ez yauna, esan neban nik. zegaitik artu dozu iduritu ori?».

Itsu zoliak erantzun eban: «Ba dakik zetan usmatu dodan irunaka iñardukala? Nik binaka yanda ixilik engoialako».

Barre egin neban neure artean, eta gazte-txua izanarren, gogoan artu neban itsuaren gogoeta.

Luzatuko ba naz bere, yalkiko dodaz yazo yatazan gauza atsegin eta yakingarri batzuk, eta azken-agurra esanda amaituko dot lelengo nagosi onekikoa.

Escalonan arrotzetxe baten gengozala, lukainka-zati bat emon eustan erretzeko. Lukainka koipatu zanean, eta koipe-zerrak yan ebazanean, atara eban sakelatik marabiri bat, eta aren ardaus-eske bialdu nindun ardandegira.

Deabruak begien aurrean ipiñi eustan eretia: onek egiten dau, diñoenez, lapurra. An egoan

sute-alboan arbitxo bat, txikarra, luxanga ta galdua, lapikorako balio ezta ara yaurti edo ebena.

Bi biok gengoan orduan, eta niri lukainka-usain goxua barruan sartu yatan, usaiña bakarria miaztauko ba neban bere. Zer yazoko zan yaramon egin bagarik, nire guraria betetako, bildurra yaurtita, itsuak sakelatik dirua ataraten eban bitartean, atara neban arin burdintzitik lukainka ta arbitxua sartu aren orde.

Nagosa, niri dirua emonda, asi zan burduntzia biraka, balio ezta, egosia izatetik igesegin eban arbitxua sutan erretzen.

Ardautan nintzala, berela iruntsi neban lukainka, ta etorri nintzanean, itsu arranoak arbi xoxtorra bi ogi-xerra-tartean estuturik eukon. Ez eban ezagutu, eskuz aztatu ez ebalako. Asi zan xerrairi ozka egiten, euren artean lukainka topauko ebalakoan, eta barrura eldu zanean arbi otzak otzikara emon eutson. Asarreturik esan eban.

Zer dok au Lazarotxu?

Ai ene errukarria, esan neban. Niri egotzi gura deustazu? Ez al nator ni ardautatik? Norbait

edo egoan or, eta zuri iseka egitearren egin edo dau.

«Eztok, esan eban, nik etxuak burduntzia eskutik itzi: ori eziña dok».

Ni zinka ta biraoka asi nintzan, enebala alako aldakuntzarik egin. Baña gitxi balio izan eustan; itsu madarikatu arentzat etzan iñun izkukurik. Yaiki zan eta eldu eustan burutik, eta usaiña artu eustan. Eta txakur onak lez arnasa aitu ebanean, ziurrago geratutearren, ekarran arnas-larriagaz esku biekaz elduta zabaltzen eustan agoa bear baño geiago, ta surra sartzen eustan neurribaga. Luzea ta zorrotza eban eta asarreagaz arra bete luzeagotu yakon. Muxturragaz gingilla ikutu eustan, eta augaitik, eta bildurraren, eta oindiño lukainka baltza urdaillean ondo ezarri etzalako, ta batez bere, sur bete-betearen aztamuagaz, erdi-ito ninduala, gauz oneik guztiak zirala bide, agertu zan nire egiña, ta berea itzuli yakon yau-beari. Beraz, itsu gaiztoak nire abotik bere tronpia atara baiño lenago, nire urdailla nastu zan, arik eta lapurretakoak surra aurkitu neban arte. Beaz, aren surrak eta nire lukainka-muttur txikitu-bagakoak batean urten eben nire abotik.

Yaungoikua! lurpean egon banendi! illik nengoan da. Itsu gaizto aren asarrea! Zarata entzunda etorri ezpalira, bizia kenduko eustan. Atara ninduen aren eskuetatik arpegia ta zamea ta eztarria atzamarzaturik, eta neuzkan ule-apurrak eskuetan izten neutsozala. Ondo egin eben eta merezi eban, gaizto arek, niri ekarri eustazan ezbearrengaitik.

Itsu gaiztoak, geugana etozan guztiei kontetan eutsezan nire okerrak bein da barriro: pitxarrena ta mas-mordoarena ta oraingoa. Euren barre-zantzoetara kaleko jente guztia ara batzen zan. Ainbat gatz eta ozpiañagaz kontetan eban itsuak nire egiteak;ni ain ondatua ta negarez egonda bere, bidegabe egiten neutsula iduri yatan barre ez egiteaz.

Au yazo-bitartean, aulkeri bat etorri yatan burura: itsu gizagaxoa surrik baga ez itzi izatea, alako ereti ona izanda. bide erdia-egiñik euki neban ortarako: agiñak estutzea asko neban beragaz etxean geratzeko. Ta donge arena zalako, urrian idukiko eban nire urdallak lukainkea baiño luzaroago, ta surra agertu ezik, ukatu

negiken auzian. Oba neban egin ba neu! Gaitzerdi zeiken.

Adiskidetu nintzan ostatuko ugazaba andregaz, ta an egozanak, edateko ekarri neban ardoagaz arpegia garbitu eusteen eta eztarria. Onezaz itsuak ateratan ebazan ateraldi politikak: «egitan, nik bi urtetan edan baiño, mutil orrek ardaugaiago gastetan dik urte baten aurpegi-garbitan». «Lazaro, ardauari aitari baiño zor geiago deusok; arek bein emon yeutxean izatea ta ardoak millakatan».

Eta gero kontetan eban zenbat bidar apurtu eustan garondoa ta atzamarkatu eustan arpegia, ta zelan osatu oi nintzan ardaugaz.

«Nik diñoiat, iñoan, munduan iñor ardaugaz zorioneko izate ezkerro i izango az».

Eta barreka iñarduen niri arpegia garbitzen, ni marmarika ba nengoan bere. Baña itsuaren igarkizuna etzan guzurra atara, ta askotan gomutetan dot ordutik ona. Nunbait igarle-atsa eban, eta damutu yatan emon neutsozan atsekabeetaz, au ta guzti bere, ondo ordaindu neutson, egun artan esan ebana, berorrrek ikusiko daben baizen egia atara yatalako.

Oneik olan da, itsu gaiztoak egiten eustazan isekaengaitik, guztiz a iztea erabagi neban. Lendanik gogoan nekarran, eta atzenean egin eustan yoku onegaz, sendoago erabagi neban.

Biaramonean urten gendun urira, eskera, ta gau atan euri andia egin eban. Egunez bere euria zan, eta erri atako legorpe batean erreze-tan iñarduen, eta an egon giñan busti barik. Illuntzean atertzen ez ebalá ikusita, esan eustan:

«Lazaro: euri au setatsu ddagok, eta illuntze-ra ta gogorrágo. Goazen ostatura garaiz».

Ara yoateko erreka bat igaro bear gendun. Euri-yasagaz aundia yoian. Nik esan neutson: «Osaba, erreka zabal doia. Gura ba dozu, ba dakit nondik igaro busti barik, arako atan asko medartzen da ta: oin-legor igaroko gara».

Ondo iduri yakon, eta esan eustan:

«Zurra az, orregaitik maite aut. Eroan nagik erreka medartzen dan leku ortara. Orain negu dok eta etxagok atsegin oin bustiakaz ibilten».

Nik neure gogoko eretia ikustean, eroan neban legorpetik, zeiean egoan arri-mutil baten buruz buru. Arri-oin orrek, etxe batzuen egats-

urtenak artzen ebazan. Esan neutson: «Osaba, au da errearen lekurik medarrena».

Euria goien bean iñarduen, eta gizagaxua lar bustitzen zan. Lepora etorkigun euriagaz uretatik urteteko gogoz, eta batez bere, garai atan Yainkoak adimena itsutu eutsolako (niri ordainbidea emoteagaitik) siñistu eban eta esan eban:

«Ipiñi nagik artez eta egik yauzi aurrena». Nik ipiñi neban arrimutillari buruz buru, ta yauzi eginda, arri-mutillaren ostetik yarri nintzan zezen-talkaren begira bainegon.

«Eup, yauzi egizu alegin guztian onantzako bazterrera eldu zaitezana».

Nik au esaterako, itsu gizagajoak akerra lez abiada artuta, yo eban buruz arri-mutilla, kuia balitz lez, eta yausi zan atzerantza erdi-ilik, burua lertuta.

«Zelan artu zenduan lukainkaren usaiña, ta ez arri-mutillarena? To, to, esan neutson».

Bertan itzi neban, erritik yoan zitzakion jentetalde baten erdian. Karrakan atara nintzan uriko atetik, eta ilundu baño len Torrijosera eldu nintzan. Eneban yakin geiago ta ez yakin nai bere, yainkoak aregaz zer egin eban.

BIGARREN YARDUNA

LAZARORI

ABADE BETEN MENPEAN

YAZO YAKONA

Biaramonean, an nasai enengoala ta Makeda deritxoen toki batera yoan nintzan, Bertan eske nenbillala, abade bat topau neban, pekatari onek, eta Meza erasoten ete nekian itandu eustan. Baietz esan neutson, egia zandada. Elbarritu ba nindun bere, itsu oker arek au irakatsi eustan beste amaika gauzen artean. Abadeak, bere mende artu nindun.

Odeietik aldegin eta iñusturia topau neban. Itsua zikoitzasun utsa izanik, Alesandro Andia zan onen ondoan. Bein esateko, munduko mixeri guztia barruan eukon, eztakit berez, ala abadegoa zala bide batuta. Kutxa zar bat eban giltzagaz itxia, ta giltz ori galtz-estunetik esegita eroian. Elizatik otlata etorri orduko an sartzen eban arrapaladan eta itxi barriro kutxa. Etxean ez egoan ezer yatekorik, besteetan lez: urdai apur bat ertokian, gaztai apur bat oltxu baten

edo armariuan; otzaratxu bat ogi-zati batzukaz. Niri onik egiten ezpaeustan bere, ikusteak poztu egiten ninduala iduri yatan.

Kipula-korda bat baño ezer ez egoan, eta bera etxearen goenean, giltzez itxiriko gela batean. Lau eguneko naikoa neban kipula oneetako bat. Eske yoateko giltza eskatzen neutso-nean, norbait aurrean ba egoan, sartzen eban eskua oker-sakelean eta astiro astiro askatzen eban eta emoten eustan esanaz:«To, ta ekarri egik laster, eta ez yardun mizkaka».

Giltz aren azpian Valenciako gorde-yaki guztiak bai legozan; untze batetik esegita egozan kipulak baño egon ezta. Eurak bere, zenbaturik eukozan, eta ni zerbait luzatu banintz, igerriko neutson.

Goseak ilten nengoan. Ni baño bere burua maiteago eban. Bost txuriren okelea eban eguneroko bazkari-aparietako. Niri salda emoten eustan, bai; okeletik, begiaren zuria; ogi apur bat, bear nebanaren erdia emon izan baleust!

Zapatu egunez alderdi oneetan aari-burua yaten da, ta bat-eske bialtzen nindun, iru marabirigaz. Egosten eban eta yaten eutsozan begi,

miin, garondo, mun eta masailarteko aragia, ta azur garbiak emoten eustazan: «To, yan egik, bizi adi, mundua iretzako dok eta. Aita Santua baiño obeto bizi az».

Oba neukek! esan neban nire artean.

Abadeagaz iru aste edo neroiazala, zutunik egoteko gauza enintzala geratu nintzan gosearen gosez. Lurpera bidea argi nekusan, Jainkoak eta nire yakiteak atara ezpanindue. Nire zakurkeria nun erabilli eneukon. Zerbait ikusita bere, enegiken itsutu abadea, il ba da Jainkoak barka degion itsu a lez. Maltzurra izanda bere enindun usmatzen begi barik; beste onek ostea iñok baiño begi zoliagoa eban.

Meza-eskeintzekoan etzan azpillean txuri bat bere yausten a oartu barik. Begi bat jenteari ta bestea nire eskuari eukoza. Begiak aurpegian yauzi egiten eutsoen zidur-bizia bai liran. Eskeintzen ebezan xuri guztiak gogoan eukoza. Eta eskeintza amaitutakoan azpilltxua niri kenduta altara-gaiñean ipinten eban.

Agaz bizi, edo obeto esana, il nintzan bitarte guztian, enintzan txuri baten yaube egin. Ardautegitik eneutson sekula txuri bat ardo ekarri, ta

kutxan eukon apurretik neurritz artzen eban eta aste osoan irauten eutsen.

Eta bere zikoiztasuna estaldutearren esaten eustan: «Txo, abadeak yan-edanian gartxu izan bear ddoek, eta nik ez ddoat geiegirik egiten besteak lez».

Baiña guzurra iñoan zikoitz arek, eleizkizunetan eta illeta-egunetan besteren llepotik otsoak lez yaten eban, eta amorratu batek baiño geiago edaten.

Illeta aitatu dodan ezkerro, Jainkoak barka begit orduan gizatasunaren aurka egon izana, iñoz ez ta. Ondo yaten bai gendun, bada ta, betetan nintzan. Gura neban eta eskatzen neutson Jainkoari, eguneko bat eroan egiela. Eta gaxoi eleizakoak emoten geuntseezanean, bertan dagozanai abadeak errezetako agintzen deutsean, batez bere ezken-igurtzi edo oliatzean, enintzan ni laburrena otoitz egiten, eta biotz biotzez eskatzen neutson jainkoari, ez noski berari egokion tokira artu egien, esan oi dan lez, baiña eroan egiala mundu onetatik.

Eta bat edo bat ataraten zanean, Jainkoak barka begit! «deabruak eroango al ddok», milla

bidar esaten neban. An egon nintzan arte guztian, sei illabete edo, ogei lagun baiño etziran il, eta eurek nik edo il nebazan, edo zuzenago esateko nire eskabidez il ziran. Iduritzen yat bada, nire gosek-ilte amorratuaren ederrez, Jaunak il egiten ebazala, niri atsegin emotearren. Baiña, neukon gosearen ase-biderik eneban aurkitzen. Norbait lurperatze-egunean bizi ba nintzan, illik etzan egunean, min andiago emoten eustan eguneroko gosetera itzuli-bearrak, betekadaz oituta. Eneban atsegiñik aurkitzen eriotzean baiño, ta neure buruari gura neutson noz edo noz besteai lez; baiña eneban yadisten, beti neugan ba egoan bere.

Askotan otu yatan nagosi zikoitz arengandik anka egitea; baiño bi gauzek eragozten eusteen. Lelengo, nire zangoen bildurrak, gosez auldurik neukozan-da. Bigarrenko, neure buruari esaten neutsolako: Bi nagosi izan dozak; lelengoak goseak illik itzi induan, eta a itzita beste au topau eban, eta lurpearen ezpaneraiño ekarri naiok. Au itxita okerragoagana yotzen ba dot, zer daukot, iltea baiño?

Alan bada, mugitzea enitzan azartzen. Ba nekian bada, geroago ta zikoitzagoak topauko nebazala. Ta beerago yo ezkerro, Lazarorik etzan aipatu izango munduan.

Estu-aldi onetan nengoala bada —Jaunak libratu dagizala atatik kristiñau zintzoak— zer egin yakin barik, gero ta okerrago niñoi ala ikusita, nire nagosi koitadu, zikoitz eta zurkaitza kantopetik zala, ateetara etorri yatan pezkin edo gal-daragille bat. Jainkoak niri bialdutako aingerua edo zan. Zerbait konpontzekorik ba ete neban itandu eustan.

«Neuronek daukot naikoa konpondu-bearra —esan neutson ixilka, berak entzuten ez ebalata ez dozu gitxi egingo konponduten ba nozu».

Ez egoan astia emoterik «eskerrik asko» esaten, eta lspiritu Santuz argiturik esan neutson:

«Osaba, olango giltza galdu yat, eta nagosiarren zigor-bildur naz. Arren bada ikusi eizu zuk daroiazuzan orreetan bai ete dan balio dabenik, ordainduko deusut eta».

Pezkiñ aingerutxua asi zan probetan bat eta beste, sail andi batetik, eta nik lagundu egiten neutsonotoitz egiñaz. Oarkabean kutxa-barruan

Jainkoaren aurpegia ikusten dot ogi-iduritan, esan oi danez. Edegita esan neutson: «Nik eztot dirurik giltzaren ordaiña emoteko, baiña artu-izu ortik ordaiña». Olata bat artu eban, eritxon ede-rrena, ta niri giltza emonda pozik aldegin eban, ni pozikago itxita.

Baiña eneban ogirik ikutu orduan, nagosia oartu etzeiten, eta ainbeste ondasunen yaube neure burua ikusita, gosea nigaz etzala azartzen iduri yatan. Etorri zan nagosi zikoitza, ta Jainko-ak ez eban gura izan aingeruak eroandako olata-ri begiratzea.

Biaramonean, a etxetik urteeran, edegi neban neure ogi-zerua, ta atzen eta ortzen tar-tean artu neban olata bat, eta Jesus bitan iruntsi neban, arduraz kutxea giltzatuta. Asi naiz etxe-garbiketari poz pozik, andik aurrera bide artatik bardinduko nebala neure gosea-ta. Egun a ta biaramona eztitan igaro nebazan. Baiña etzan luzaroko atsegiña, irugarren egunean beroenak (kallentureak) artu nindun-da. Izan bere, ezor-duan kutxa-gaiñean ikusi neban goseak ilten nin-dun a, itzuli ta irauli, ogiak kontetan bein da barriro. Disimuletan neban eta neure otoitz eta

eskabide ixilletan niñean. «Sanjuan, itsutu egizu!»

Egunak eta atzak luzaro kontetan yardun-dan esan eban: Kutxa au arduraz ezpaneuko, norbaitek ogiak ostu deustazala esango neukek, baiña gaurdanik idurituai atea ixtearren, gogoan edukiko dodaz: «bederatzi ta puska bat geratzen dira».

Beatzak galduko al dozak arraio orrek, esan neban neure artean. Aren esanak eizlari-geziak lez biotza zulatu eustan, eta urdaila goseak atzamarka asi yatan, lengo gose-egunetan neure burua ikusita. Aldegin eban etxetik. Nik poztearren kutxa edegi neban, ta ogia ikustean adoretan asi nintzan, artzen azartu barik. Kontau nebazan, baldin utsegin ete eban, baiña aren kontaketa nik gura baiño egiago yazo zan. Besterik ezin-da nik egin nebana, milla mosu emon ogiai, ta puskari barriz, ebagiaren gaiñetik eta erara kendu neutson exal bat, eta beragaz igaro neban eguna, ez aurrekoa baizen pozkorra.

Gosea gora yoian, batez bere bi edo iru egun areetan, sabela ogi geiago yaten oitua neukonda. Ill-agiñean nengoan, eta kutxa itxi ta kutxa

zabaldu baiño eneban egiten eta Yainkoaren aurpegi ari begiratu, umeak esan oi deben lez. Baiña gaixoai laguntzen deutesen Yaikoak berak gogorarazo eustan estuasunetik urteteko bide-txu bat. Nire artean esan neban.

«Kutxa au zarra ta andia ta autsia da andik-emetik, zulo txikarrak ba ditu bere. Arratoiak sartuta ogia ozkatzen dabela ikurituko edo yako. Bat osoa ataratea etxat komeni, berelaxe oartuko da ta. Au egin daiteke».

Ta asi nintzan ogiak apurtuten mai zapi txarpil batzuetara, ta bat artu ta bestea itzi, iru edo lautatik atara neban zertxubait. Gero, goxogauza bai litzan yan neban apur bat eta poztu nintzan. Bazkaritara etorrita kutxa idigi ebanean, ikusi eban gaitza, ta nunbait, arratoiak egiñ ebela sinistu eban. Oso yator egozan zuloak, arratoi-antzera egiñak. Begiratu eban kutxa guzia zatirik zati, ta zulotxu batzuk billatu eutsozan, iduritua artzeko lain. Dei egin eustan:

«Lazaro, begirok ze etsai etorri yakon bart gure ogiari».

Nik arrituarena egin neban, zer ete zan itaunka.

«Zer al dok?» esan eban: arratoiak; etxoek ezeri bakean izten. Asi giñan yaten, eta onetan bere, zori ona izan neban, Yainkoak alan nai ta. Eguneroko uskeri a baiño ogi geitxuago egoki yatan. Kutxilluaz kendu eutxon arratoekuntzea zala uste ebana, iñoala:

«Yan, egik ori, arratoia gauza garbia dot eta». Alantxe, neure eskuen lana, edo zuzenago esateko, atzazalena eguneko yatekoaz batuta, bazkaria amaitu gendun, nik sekula asten ezpeneban bere.

Gero beste larrialdi bat yazo yatan. Ikusi neban abadea arduraz untzeak ormatik atarata oltxu batzukaz kutxa zar aren zuloak ixten.

«Yaungoikua! esan neban, zenbat ezbear eta zoritxar ikusteko yaio gara, ta zein laburrak dira, bizitza neketsu ontako atsegiñak! Nik uste neban uste, bide orregaz aldegingo neutsola neure zoritxarrari, ta alai ta pozik nengoan ainbestean. Nere zoritxarrak iratzarri eban nagosi zikoitz au, ta berez zan baiño arduratsuago egin, zikoitza lez, naiko izanik bere; ta kutxaren zuloak ixteagaz nire pozarenak bere itxi ebazan, eta idigi zoritxarrarenak».

Nik asmu auetan niñarduen bitartean, gure arotz zurrak amaitu eban bere lana ainbat untze ta oltxugaz iñoala:

«Oraintxe, arratoi jaunak, beste asmorik artu egizue, etxe ontan gizentzerik eztaukozue-ta».

Etzetik urten ebaneko, banoa lana ikustera, ta kutxa zar zorigaiztoko artan ez eban itzi eltxu bat sartzeko diñako zulorik. Idigi neban nire protxubako giltzagaz ta ikusi nebazan asita zegozan ogi bi edo iruak, nire nagosiak arratoe-ozka zeukiela ta ebagi ebazanak. Euretatik apur bat atara neban oindiño be, arin arin ikutuaz, ezpataketa-ri trebeak lez. Bearra lako irakaslerik ez da-ta, neure burua ainbestekoan beti ikusita, gau ta egun nola biziko, niñarduen nire artean.

Ta bizi-bide orreik aurkitzeko, goseak argi egiten ei eustan; esana da bada, goseak burua argitu egiten dabela, ta beteak osteria illundu, ta nigan ori gertatzen zan.

Gau batez lo-galdurik nengoala asmu oneetan (zelan baliatuko ete nintzan kutxa ataz), oartu nintzan nagosia lo egoala. Alako zurrunga ta sur-aizea iñarduen. Jagi nintzan asti-astiro, ta egunez pentsau nebanez, an itzi neban kutxillu

zar bat leku yakiñean. Banoia kutxa zarrera, ta argalen egoala ikusi neban lekutik ekin neutson kutxilluaz taratulua bai litzan. Eta ainbeste urte-tako kutxa zarra, indarrrik ez biotzik ez ebana oso beraturik eta zizkaturik egoana, berela eskuratu yatan eta saietsean zulo eder bat egin neutson nire onerako. Au eginda idigi neban astiro kutxa zauritua, ta esku-ikutzeaz erdituta aurkitu neban ogiari, len esana egin neutson. Alantxe, poztu-txuago, kutxa itxita neure lasto-ganera itzuli nintzan, eta an itxedon eta lo apur bat egin neban. Eneban asko egiten; gitxi yanda edo irudi yatan. Izan bere, sasoi atan ezeustan loa galazoten Frantziko erregearen ardureak.

Biamonean nagosiak ikusi eban nik egiñiko kaltea, ogiarena ta zuloarena, ta asi zan arratoiai biraoka. «Zer ete da au? Oraiñarte eztoгу etxe ontan arratorik ikusi!».

Ta egia ei zan. Iñun etxerik ba da eurentzat debekaturik, a zan noski, ezer yatekorik eztagon tokian ez bai dira batzen. Asi zan barriro untze-billa ta oltxu-billa etxe guzian, zuloa tapetako. Gabeko itxodona-bitartean, yagitzen nintzan eta

nire tresnagaz, arek egunez tapatu-ala nik agertu egiten nebazan.

Aen usu ta ariñ egiten gendulako esan edo da: «atea itxi ta atea idigi». Atzenik, ba irudian, alde batera gendula Peneloperen euna, arek egunez eioten ebana gabez nik urratzen neutson-da. Egun gutxi barru kutxa alako itxurean itzi gendun, zuzen itzegite ezkerro kutxa ez baiño antziñako «koraza» aietakoa irudien, ainbat untze-josiaz.

Ezer aurreratzen ez ebala ikusita, esan eban: «Kutxa elbarri, zar, argal onek ez dau arratoientzat balio. Ta olan ba goaz, gordepe barik itziko gaitu. Ta gitxi balio ta bere, oindiño palta egingo deusku, ta iru edo lau errial eralgi bearko dodaz. Biderik onena al da ta, arratoi madarika-tu orrei barrundik sagutei bat ezarri bearko deutsegu, beste ezerk eztau balio ta».

Berela ekarri eban sagutei bat epetan, eta auzokoai gaztae-azal batzuk eskatuta, katua an egoan kutxa-barruan ernai beti. Ez nire damuz. Eneban bear bazi andirik yateko, baiño alan bere pozten nintzan saguteitik atarariko azalakaz, eta eneutson parketan olatari arratoe-marraska.

Ogia arratoitua ta gaztaia yana ikusita birao-ka asten zan, ze arratoi ete zan ezin konturatuz, eta auzokoari itauntzen eutseen zer ziteken; gaztaia yan eta saguteitik atara ta ez geratzea barruan arratoirik eta saguteiaren tranpatxua ez yaustea.

Gogoratu yakeen auzotarraiz ez ei ebala alakorik iñungo arratoiak egiten, noz edo noz yausi barik. Batek esan eutson:

«Gomutetan dot zure etxean suge bat ibili oi zala ta a edo da. Ta itxura ba dau, luzea baita, ta yana artu dagike, ta oso sartu barik, urten egiten dau tranpatxuaren azpitik».

Ondo artu eben danak aren esana, ta larritu zan nagosia, ta andik aurrera ez eban lo nasai egiten. Zedenaren otsa gabez entzun-aldioro, sugea irudi yakon kutxa-zura yaten. Berela yagitzen zan, eta, sugearena esan eutsoenean, bururko ondoan eukon makilla bategaz, kutxa gaixoari egundoko makilkadak emoten eutsozan, sugea ikaratuko ebalakoan. Zaratagaz auzokoak itxartzen ziran, eta niri ez eustan lo egiten izten.

Yoaten zan nire lastoetara ta beraiekaz iraultzen nindun sugea nigana yoaten zalakoan, eta agotz-tartean edo nire estalkian izkutatzen zaia-koan. Esan edo eutsoen, pisti oneek gabez bero billa sein-askaetara yoten ebela umeak ozkatze-ko ta galtzeko zorian. Nik geienez lo artu-iduri egiten neban, eta goizean esaten eustan:

«Mutil, bart eztok ezer usmatu? Sugearen billa ibilli nindukan, eta ire ogepera doala iduri yatak, oso ozperak dozak eta, bero-billa».

«Ez nagiala ozkatu, niñoa; naiko bildur de-
tsot».

Orrela nenbillen oso yagia ta ernai. Suge, edo obeto esan, giza-suge arek ez eukon gabez marraska yarduteko ta kutxara yagitzeko asmu-rik. Egunez egiten nebazan nire bidealditxuak, bera Eleizan edo errian zan bitartean.

Kalte orreik ikusi ta nola aldendu yakin ez, gabez ebillen, esan dodanez, zomorroa lez.

Bildur nintzan, ainbat ardurez giltza lasto-
tartean topauko ete eustan, eta ziurrago egotea-
gaitik aoan sartzea otu yatan gabez. Izan bere,
itsuagaz bizi izan nintzanetik zorro biurturik neu-
kon agoa, ta amabi ta amalau marabiri txuri-

erditan iduki oi nebazan barruan, yatekoan be oztopo barik. Bestela enintzan txuri baten yaube itsu madarikatua oartu barik, zizkuak eta yosku-reak arakutzen eustazan sarri-ta.

Esan dodanez, gabero sartzen neban giltza agoan eta alan lo egiten neban nire nagosi sor-giña oartuko zan iruditu barik. Baiña zoritxarra dotorrenean, alperrik da ardurea. Nire patuak edo zuzenago esateko, nire pekatuak egin eben, gau batez lo nengoala giltza agoan zuzen koka-tu yatan kanpora begira, ta nik eragiten neban aizea, txulotik ateratzen zan txistuka. Alako txis-tu-zarata entzun nire nagosiak eta egiñ eban bere artean, txistu a sugearena zala, ta alan irudi bide eban.

Yagi zan astiro astiro, makilla eskuan eballa, ta sugearen txistu-otsera geldi geldi eldu zan, sugreak usmatu ez egian. Ondora zanean, irudi yakon ni etzunda nengoan lastoetan egoala, bero-billa etorrita. Makilla ondo altzau ta azpian eukolakoan bertan kalitzeko asmuz, indar guztiz emon eustan buruan egundoko maikillkada, ta korde barik itzi ninddun, kaskarra autsita.

Emon eustala oartu zanean, nire tamala ain andia bide zan, etorri ei zan nigana ta oiuka ta deika neureganatzen alegin ei eban. Eta esku-ikuka asi yatanean, oartu zan odoletan niñoiala, ta ezagutu eban egin eustan kaltea.

Eriosuar yoan zan argi-billa, ta urreratuta aienaka aurkitu nindun, oindiño giltza agoan neukola, ez bai neban bertan-bera itzi, erdia agerian, txistu egin nebanean neukon edo lez.

Suge-iltzailleak arrituta begiratu eutson giltzari, ta agotik oso ataraten eustala ikusi eban, berea lako lakoxea zala. Yoan zan probetan eta aurkitu eban sorginkeria. Esan edo eban eiztari gogor ak:

«Bakea galazoten eusten arratoi-sugeak eta nire ondasuna yaten ebenak aurkitu yoataz».

Iru egun areitan yazo zanik ezer ez dagiket esan, bale-barruan egon nintzan-da. Baiña gaur kontau dodana, neureganatu nintzanean nago-siari entzuna dot, ak kontetan eutseen luze ta zabal, zatozan guztiei ta.

Iru egun buru neureganatu nintzan, eta lastoganean aurkitu neban neure burua, txaplataz,

orioz, eta gantzukariz betea, ta ikaratuta esan neban.

«Zer da au?».

Abade ankerrak erantzun eustan:

«Egitan, arratoi ta sagu galtzailleak eizatu yataz».

Begiratu neutson neure buruari ta bertan ulertu neban nire gaitza. Orduan sartu zan sorgiñ-atso sendalari bat, eta asi yatan buruko zapiak kentzen eta makill-zauria sendatzen. Korderatu nintzanean poztu ziran eta esan eben:

«Bereganatu da, ta ez al dau ezer izango Jainkoagaitik».

An asi ziran barriro nire gaitzak kontetan, eta ni pekatari au negarretan. Au ta guzti bere yaten emon eusteen eta ozta ozta ase nintzan, goseak amorratzen nengoan-da.

Andik amabost egunera yagitzen asi nintzan eta eriotzetik atara nintzan, ez gosetik baiño.

Jagi ta biamonean, nagosi yaunak eskutik eldu eustan eta etxetik atara nindun eta esan eustan atarian.

«Lazaro, gaurdanik eurea az, ez nirea. Billatu egik nagosi bat eta oa Jainkoagaz. Nik etxoat

gura i lako morroe zintzorik. Itsu-mutilla izan edo az, iñolaz bere».

Ta ziñatu nire aurrean deabrua bai neukon, eta etxera sartuta atea itxi eban.

IRUGARREN YARDUNA

Lazarori

**ezkutari baten menbean
yazo yakona**

Onelan, eneukon lekutik indarra atarata, astiro astiro jente on batzuen laguntza-bidez, Tole-doko uri entzutetsu onetan aurkitu neban neure burua, ta Jainkoari eskerra, amabost egun buru sendatu yatan zauria. Gaixo nengoan bitartean emoten eusteen limosnatxu bat, baño sendatu nintzanetik danak ekin eusteen:

«I, gizatxar alper ogi-yalea az. Billatu egik nagosi on bat».

«Eta nun aurkituko dot, niñoan neure artean, Yainkoak berton sortzen ezpadau, mundua sortu eban lez?».

«Onela buruetan aterik ate nenbillala, protxu andi barik —maitasunak zerura aldegin ebanda— Yainkoak ezkutari bategaz buru egiñazo eustan kolean, ondotxu yantzia bera, ondo orraztua, ibilkera astitsu ta neurtuagaz». Begiratu geuntson alkarri ta esan eustan:

«Txo, nagosi billa abil?». —Eta nik. —«Bai yauna». —«Ator ba nire atzetik —esan eustan—, Yainkoak batu au nigaz-ta. Gaur otoiz onen bat egin dok».

Yarraitu neutson, entzun neutsonagaitik Yainkoari eskerrak emonez, eta iduritu yatan nik bear nebana zala, alako yantzi ta ibilkereaz.

Goizetik zan irugarren nagosi au topau nebanean. Eroan nindun uri guztia zear. Igaroten genduzan, ogi ta beste yakiak saltzen ziran zeiak. Nik uste ta gura neban, bertan leporatuko eustala zerbait, ordu aukerakoa zan-da bear zanez ornitzeko; baiña tapa-tapa aurrera egiten eban.

«Ez bide yako atsegin au —esaten neban— eta beste nunbait erosi gura edo dau.

Olan ibili giñan amakak arte. Orduan eleiz nagosira sartu zan, eta ni atzetik, eta oso gogo beroz entzun ebazan, Meza ta osterantzeko elizkizunak. Guzia amaituta jenteak aldegin ebanean, urten gendun guk bere Eleizatik.

Kalea bera yo gendun tapa-tapa. Ni, munduan dan pozikena niñ oan, yateko-billa ibilli ez giñalako. andizka ornitzen zan gizona edo zala

pentsetan neban nagosi barri au, ta bazkaria gerturik edo egoala, nik gura ta bear neban lez.

Onetan, erlojuak eguerdi-osteko ordu bata yo eban, eta etxe baten aurrera eldu giñan. An lotu zan nire nagosia ta ni agaz, eta kapa-muturra ezker-aldera yaurtiten ebala, giltza bat atara eban besartetik, idigi eban atea, ta etxera sartu giñan. Sarrera estua ta illuna eban, sartzen zira-nai bildur emoteko lain; alan bere, barruan atari-argia ba eukon, eta ala-alako etzauntzak.

Sartu giñaneko, erantzi eban kapea, ta eskuak garbi ete neukoizan niri itanduta, iñarrausi ta bilukatu gendun eta an egoan arri-aulki bateko autsari txukun txukun aizeginda, berton ezarri eban. Au eginda yezarri zan aulki-ertzean, eta itaundu eustan luzaro nongoa nintzan eta zelan agertu nintzan uri atan.

Nik barri emon neutson, nai baiño luzegoa, atarako baiño maia ipintzeko ta lapikuko salda ainbanatzeko garai obea zan da. Alan bere, neure barri emon neutson al neban guzurrik politenagaz, gauz onak esanaz eta txarrak ixilduaz, oneik esateko leku egokia etxatan iduri ta. Oinbestez, itxaron eban apur bat eta laster artu

neutson usain txarra, ordu biak ziran bada ta eneutson yangurarik sumatzen, ilda bai legon.

Ganera atea giltzaz itxia, ta ez goien ez bean ez ageri iñor biziren zantzurik eta urratsik. Ormeak baiño enebazan ikusi; ez aulkirik, ez otaskarik, ez zizallurik ez mairik, ezta arako kutxa zarra lakorik. Sorgiñ-etxea irudian noski. Onetan gengozala, esan eustan.

«Txo, ezer yan dok?».

«Ez yauna, berorregaz topo egin dodanean zortzirak etziran da».

«Nik bada, goiz izan arren, gosaldu nebian, eta zerbait goizetik artzen dodanean, gaberarte olan egoten nok. Al dokan lez iraun egik, gero apalduko ddoagu-ta».

Yakin begi berorrek, au entzun neutsonen, erori-agian geratu nintzala, goseagaitik baiño areago, zoritxarra ain garbi ikusita. An gogora yatazan barrero nire nekeak, eta negarrari eraso neutson. an gomutau neban, abadearengandik aldegitoko asmua neukonean otu izaten yatana: a zikoitza ta gizatxarra izanik bere, bear ba da okerragoa topauko nebala. Bein esateko, an

negar eragiten eustan igaroriko bizitzak, eta etorkizuneko eriotz lasterrak.

Alan bere, al neban lez, beste egin neban, eta esan neutson: yauna, Yainkoari eskerrak, enaz larregi estutzen yan-guraz. Neure artekoetan ezto aurkitu nirea lako eztarririk, eta oiñarte izan dodazan nagosiak ainzat euki nabe.

«On-indarra dok ori —esan eustan—, eta orregaitik maiteagoko aut. Asetutea txerrien egiñena dok, eta neurritz yatea gizon prestuena».

«Ondo yagok! —esan neban niretzako—. Zorigaiztoko sendagaia ta ontasuna aurkitzen dabe nire nagosiak gosean! Jarri naz atal-ondoan eta eskeko ogi-zatiak ataretan asi nintzan kolko-tik. Ori ikusi ebanean, esan eustan:

«Arraietan ona bide dok ogi au». «Ta zelan da ona orain, yauna?» esan neban. «Egietan», esan neban, «nun aurkitu dok? Esku garbiz oratua ete da?». «Eztakit, baiña niri ezteust emoten nazkarik». —«Alan bedi» esan eban nagosi gizagaxuak. Eta ogia agoratzuz egundoko ozkadak emoten asi zan, eta ni bestean.

«Bai goxua dagola» esan eban.

Eta zer anketatik errena eukon usmatuta, presaka asi nintzan. Oartu nintzan bada, nik baiño lenago amaitu ezkeru, lagunduko eustala neure ondarretan. Onelan, biok batera amaitu gendun. Nire nagosia asi zan, paparrean geldituriko ogi-apur apurtxo batzuk eskuekaz iñarros-ten. Eta an egoan gelatxu baten sartuta, atara eban pitxar ezpainbako bat, eta edandakoan, eskeñi eustan niri bere. Nik, urtzale-iduri egin da esan neutson:

«Yauna eztoz edaten ardaurik».

«Ura dok, erantzun eustan, edaik nasai». Artu neban pitxarra, ta edan neban apur bat, nire nekea etzan egarria-ta.

Onetan ondo giñan gaberarte, ak itaundu ta nik erantzun, al neban lez. Alako baten, sarrarazo nindun pitxarraren gelan, eta esan eustan:

«Txo, ago or, ikusiko dok zelan egiten dogun ogea, emetik aurrera ogea egiten yakin dagi-kan». Jarri nintzan mutur batetik eta a bestetik, eta oge baltza egin gendun. Ez eukon egiteko andirik. Seska-esi baten ganean eukon oe-yan-zia, illazki baltz baten ganetik. Sarritan garbitu barik egoalako, ez eukon illazkiaren antzik, bear

baiño ule gitxiagoz beteta bere balio arren. Zabaldu gendun bigundu nairik, baiño aen gauza gogorrik ez daiteke bigundu. Koltxoe deabru ak ez eukon barruan ezebe. Seska-ganean zabaldu-ta, seska guziak nabarbentzen ziran, eta txerri argal argalaren bizkar-ezurra irudien. Eta koltxoe gose aren ganean, bere antzeko oazala; eneutson igerri ze koloretakua.

Ogea eginda illundutakoan esan eustan:

«Lazaro, belu dok, eta emetik zeiaara bidealdi andia yagok. Uri onetan bere lapur asko ebizak gabez lapurretan. Al gogun lez igaro dagigun, eta biar eguntzean, Jainkoak lagunduko euskuk. Ni bakarrik nagolako enegok yanez ornidurik. Egunokaz kanpotik yan ddoat, baiña aurrerakoan beste eraz yokatu bear ddoagu».

«Jauna, esan neban, nigaitik bego nasai berori, oiturik nago gau bat eta geiago yan barik geratzen».

«Luzarogo ta osasun obeaz biziko az, eran-tzun eustan. Eztok bada gaur egunean, luzaro bizitzeko, gitxi yatea lako biderik».

«Olan ba da, esan neban, enok ilgo sekula. Nik yan-neurri au nai ta ez erabilten ddoat beti, ta zoritxarrez erabiliko bere bai, bizi guztian».

Eta etzun zan, bururkotzat galtzak eta yipoea ebazala. Bere oiñetan etzuteko agindu eustan. Baña eneban lo txarra egin! oge-sesak eta nire azur zorrotzak gau guztian esarre berotan egon ziran. Nire lan, gaitz eta goseaz, eneukon libra bat aragi, ta gañera, egun atan aen gitxi yanda, goseak amorratzen nengoan eta gosea ez da loaren adiskide. Neure buruari birao ta birao yardu neban gabez, Yainkoak parka begit, eta baita nire zoritxarrari bere; ta okerrago dana, mugitzen enintzan azartzen a ez irazartzeagaitik. Askotan eskatu neutson eriotza Yainkoari.

Biamonean yagita asi zan galtzak eta yipoea ta soingaña ta kapea iñarrosten. Nik laguntzen neutson. Yantzi zan astiro astiro, bere gogara. Esku-ura yaurti neutson orraztu zan, eta gerrontzean ezpata esegi bitartean esan eustan:

«Bai iakik, mutil, ze gauza dan au! Munduan dan urredirugaitik enokek emongo. Antoniok egindakorik bere, eztok onek baizen galtzairua gai daukonik».

Eta zorrotik atarata atzakaz aztertu eban, iñoala:

«Begirok, itz emoten ddoat ule-malo bat eba-giko dodala beregaz. Eta nik esan neban nire artean: bai nik ere nire agiñakaz, galtzairu ez izan arren, lau librako ogi bat».

Sartu eban atzera ta gerriratu eban, eta baita gerrontzearen buxtar-xorta bat bere. Ta ibillera astitsuaz, gorputza zurrun, gorputz-buruai ganoraz eragiten eutsela, kapa-muturra lepo-gañera nai besapera yaurtiz, eta eskuma saietsean, atetik urten eban, iñoala:

«Lazaro, zaindu egik etxea, ni mezetara bitartean, eta ogea egik, eta pitxarragaz oa emen azpiko ibaira, ta giltzaz atea itxi egik iñok ezer ostu ez dagian, eta gorde egik emen ateorpo-ondoan, ni bitartean etorten banaz, sartu nadin».

Ta ba doa kalea gora, bai aurpegiz ta ganoraz; ezagutzen ez ebanak usteko eban Alarcos kondearen aide urkoa zala, edo beintzat yantzi-laguntzailea.

«Yaungoiko laztana, esan neban, zuk ekarri gaitza ta zeuk emon osasuna! Nori idurituko

yakon nire nagosi au ain pozik ikusita, bart apaldu ez ebanik oge onean lo egin ez ebanik, eta goiz izan arren ondo gosaldu eztabenik? Gauz izkutuak egiten dozuz, yauna, ta jenteak ez dakiz! Alako tankerak eta yazkerek nor ez itsutu? Nok uste gizaseme a atzo egun osoan yan barik egon zala, Lazaro otseñak kolkoan egun eta gau osoaz erabili eban ogi-puska —ez garbi garbia— yanda? Gaur oster, aurpegia txukatze-ko, esku-oial orde z yantzi-ertza erabili ddabela. Eleukio iñori gogoak emongo. Yauna, yauna, zenbat olako ete dabiz mundu zabalean, dalako izen on baltz orregaitik yasaten, zugaitik yasangor go eleukiena!».

Olan nengoan ate-ondoan, gauzok eta beste asdo gomutetan, nire nagosi yaunak kale luze estua igaro eban arte. Ta igaro ebaneko, sartu nintzan etxera barriro, ta Jesus baten irauli neban guztia goi ta be, ezer atrapau barik, ez egoan da. Oge baltza astindu neban, eta pitxarra artuta banoa ibaira. An ikusi neban nagosia andra zomorro bigaz itaunka. Ni aza-zurten batzuk yaten niarduen gosaritako, ta ardura andiz otsein barria lez, etxera itzuli nintzan,

nagosiak ikusten enindula. Etxe-zatiren bat isas-
teko asmua neban, baño eneban aurkitu zegaz.
Zer egingo egon nintzan alditxu baten, nagosia-
ri eguerdira arte itxedongo ete neutson edo,
ordurako zerbait yateko ekarriko ete eban; baiña
alperrik izan zan nire egona.

Ordu biak zirala ta ez etorralla ikustean, itxi
neban giltzez atea, ta giltza itzi neban ak esan-
lekuan, eta banoa neure bearrera. Mintzo apal
argalaz, eskuak butarretara baturik Yainkoa
neure begien aurrean eta miña aren izenean
neukozala, eske asi nintzan aterik eta etxerik
andienetan. Bizibide au bularragaz edoski bai
neban —au da, itsu irakasle andiagandik ikasi—
ta ainbesteko ikaslea atara nintzan. Erri onetan
maitasun gitxi ta ez-urtea izanik bere, lauretara-
ko beste ainbeste libra ogi irunsiteko alderdia
egin neban, eta beste bi ta geiago kolkoan eta
mauketan. yo neban ostatura ta tripategi betetik
igarotzean eskatu neutson andra aetako bati ta
bei-atzazal zati bat emon eustan tripaki egosi
apur batzukaz.

Etxera nintzanean an egoan nire nagosi ona,
kapea arri-aulkian bilduta, bera etxe-zelaiean

arantz-onantza. Sartzean etorri yatan. Agiraka artuko nindula uste neban, baiño, Yainkoak obeto egin eban.

«Nundik ator» itaundu eustan, eta erantzun neutson:

«Yauna, ordu biak arte emen egon nozu, ta berori ez etorrara ikustean, ortik uritik yoan naz jente on batzuekana eske, ta aon zer emon deusteen».

Erakutsi neutsozan magalean nekazan ogi ta tripakiak, eta aurpegi onez esan eban:

«Ire begira egon nok bazkaritarako, ta ez atorrara ta, bazkaldu egin yoat. I ostea gizon yatorra lez yokatu az, oba dok bada. Yainkoarren eskatu, ostu baiño. Berak lagundu begit, ori ondo iduri yatalako. Auxe eskatuko yoat, arren, ez dagiela yakin neugaz bizi azanik, nire izen onagaitik. Alan bere, uri onetan ezezaguna nok eta ez al dok entzute ori zabalduko».

«Ez ardura izan nagosi, ezteust iñok itanduko ta eztaukot iñori esan bearrik».

«Orain bada yan egik gizagaxo orrek, Yainkoak gura ba dau, laster gozak premi barik. Baiña, esango ddoat, etxe ontan sartu ezketiño etxoat

gauz onik ikusi. Solairu txarra ei dok. Ba dozak zoritxarreko etxeak eta oin txarrekoak; euretan bizi diranai zoritxarra itsasten deutesenak. Au edo dok bat; baiña agintzen ddoat, illa bete ezker, enazala bertan geratuko, yaube egiten ba naue bere».

Yezarri nintzan aulki-ertzean eta atsaldekoa gorde egin neban, saloberitzat artu ez negin. Asi naz bada aparitan, nire tripei ta ogiari aginka, ta azpitik begiratzen neutson nagosi gizagaxuari, ta ak ez eban begirik kentzen, nire magaletik: magala neban orduko platerrea. Yainkoa erruki bedi nitaz, ni ataz erruki nintzan lez; ak barruan eukona nik bere euki neban, eta askotan, egunero sentizen neban. Yaten eskeñiko ete neutson nengoan, baiña yan ebalala esan eustan da, bildur nintzan ondo artuko ez ete eban. Atzenik, gura neban gizagaxo ak niri lagundutea bearrean eta gosaldu egiala, egunez aurretik egin ebanez, ba egoan bada yaki oberik, eta nire gosea etzan aen andia.

Yainkoak neure guraria bete eban, baita arena bere, uste dodanez. Yaten asi nintzanean

bada, ta bera arantza ta onantza, eldu zan nigana ta esan eustan:

«Egundo etxoat ikusi, Lazaro, yaten ik lako ganorea daben gizonik. Iñok ez au ikusiko yaten, yan-gurea sentidu barik, len ezpaleuko bere».

Esan neban nire artean: ik daukokanak iduriazoten deusk nirea ederra dala.

Alan bere, laguntzea erabagi neban, bera asi zan ezkeru, ta bide emoten eustan ezkeru. Ta esan neutson:

Yauna: aukera onak egiten dau biargiñ ona. Ogi au goxo goxoa dago, ta bei-atzazal au guztiz ederto egosia ta ondua; daukon aogoxoz edonor zirikatzeke modukoa.

«Bei atzazala da?».

«Bai yauna».

«Munduan dan aamenik goxoena dok, eta eztok olako faisarik niretzako.

«Aztertu begi bada zelakoa dagon, yauna».

Atzazaletan ipiñi neutson bestea ta iru edo lau ogi-zati txurienetikoak. Nire ondoan yezarrita asi zan yaten yan-gurea bai leukon, azur bako-txa marrasketan, bere txakurrik onenak baiño obeto.

«Almodroteagaz dok au bere biziko yanaria», esan eban.

«Bazi obeagaz yaten dok ik» esan neban ixilik.

«Ezer yan ezpaneu baizen goxoa iduri yatak».

«Ori egia dan baizen urte onak etorriko al dozak», esan neban nirekiko.

Eskatu eustan ur-pitxarra ta emon neutson ekarri neban lez. Ez bide eban izan ganez nire nagosiak yanaria: urik etxakon palta-ta. Edan gendun eta ogera yoan giñan pozik aurreko egunean lez.

Ez luzatzearren, olan bizi izan giñan zortzi edo amar egunez. Bera goizero yoaten zan esaniko ganoreaz aizea iruntsiten, Lazaro gizagaxua otso-burutzat ebala.

Nire zoritxarragaz gogoetan nengoan sarri, nagosi zitalengandik aldeginda oba billa nenbillela, olakoaren menpean gertatu-bearra. Arek niri emon orde z nik ari yaten emon bear. Au ta guzti bere maite neban, besterik ez ebalako ta ezin ebalako; ta eneukion gorrotorik, urrukia

baiño. Ta askotan gosea igaroten neban, aren-
tzat ostatura zerbait eroateagaitik.

Goiz baten yagita ator-utsean igon eban etxe
goienera bere bearra egitera, ta bitartean iduri-
tua kentzearren arakatu neutsozan bururkotzat
zeuzkon yipoea ta prakak, eta terziopelozko toxa
bat aurkitu neutson izur izur egiña, ez txuri, ta
aspaldian egondako zantzu be barik.

«Gizagaxu au beartsua dok, niñoan, eta ezta-
benak ezin emon; baiña itsu zikoitz ak eta zori-
gaiztoko abade zurkaitz ak goseak ilten ninduen,
Yainkoak bieie emonda bere: batari jenteak
eskuan muñ eginda, besteari miña zolia ebalako.
Bidezko da bada, nik eurek gorrotatzea ta oneri
urruki izatea».

Yainkoak ondo daki, ezkutari a lako bategaz
topo egiten dodanean, ze tamalgarri yatan alako
ibillera andikiz ikusita, ak beste larrialdi al dabe-
la pentsatzeaz. Gurago neuke aren otsein izan,
beartsu ta guzti bere, beste areena baiño, esan
dodanez. Zertxu bat eban, niri atsegiten ez eus-
tana: aen buru-erexia izatea. Bere arrotasuna
beeratu egiela, premiña goratzen zan giñoan.
Baiña olango gizonen artean ekandu yakiña edo

da ori. Txuri garaurik ez izan arren, kapelua bere lekuan euki gura dabe. Yainkoak ondu begi, onozkero gaitz ontatik ilgo dira-ta.

Olako biziera neroiala, ni paketan izten enindun zoritxarrak egin eban, nik etxe zarpail lotsagarri atan ez irautea. Urte a ezurtea zan ogitan, eta udalak erabagi eban arrotz guztiak uritik alderagitea. Aldarrika zabaldu zan, andik aurrera urian topetan ebena, zigortu egiela. Ta lau egun buru ikusi neban, izan bere, eskale-sail bat kale-rik kale, legearen menbean. Ikaratu nintzan lartxu be, ta enintzan geiago eskatzen azartu. Ikustekoa zan noski nire etxeko yan-bagea ta etxe-koen tamala ta isiltasuna. Bi edo iru egunez ezer yan barik eta tutik itzegin barik egon giñan. Gure alboan bizi ziran andratxu irule ta kapelagille ezagun batzuk emon eusten niri bizitza. Areei ekarten eutseen apurretik emoten eusteen niri zerbait, eta gose gose geratzen nintzan.

Ta neure buruaz baiño urrukiago nintzan nire nagosi gaxoaz, zortzi egunez ez eban ezer agora eroan-da. Etxean beintzat, ondo egon giñan yan barik. Nik eztakit nondik ebillen eta zer yaten eban. Eta eguerdian kalea bera etorten ikusi,

txakur xarlango yatorra biño gorputz luzeagoaz!
Eta dalako izen on baltz orregaitik lasto izpitxu
bat artuta, etxean asko ezpaegoan bere, urteten
eban etxetik agiñai zirika, ez tartean zerbai
eukolako. Ta etxe zarragaitik atx egiñez iñoan:

Etxe onen zoritxarra edo dok. Illuna ta tristea
dok. Emen gagozan arte amaika ikusi bear
yoagu. Amaituko al dok illebete au, ortatik urten
dagigun.

Lorraldi ta larrialdi gose ontan gengozala,
egun batez, eztakit zori onez ala txarrez, nire
nagusia erreal baten yaube egin zan. Pozez txo-
ratuta etxera zan. Veneciako ondasuna aurkitu
bai leban, eta aurpegi alai ta barretsuaz emon
eustan, iñoala: «Toik Lazaro, Yainkoa eskua
zabaltzen asi yakuk. Oa zeiera ta erosi egik ogia,
ardaua ta okelea. Busti dagigun! Yakik ganera,
poztu aitean, beste etxe bat topau ddoatala alo-
geretan, eta oraingo zarpail ontatik aldegin bear
ddoagu illa betetakoan. Zorigaiztokoa bera, ta
bertan lelengo teila ipiñi ebana:gaiztoz sartu
bedi! Yainkoarren, bertan bizi nazanetik etxoat
okel-aamenik, ez edan ardauri, ez izan atsed-
nik. Eta zer aurpegi latza ta illuna daukon! Yoan-

etorri egik arin, eta yan dagigun gaur kondeak lez».

Banoa nire erreala ta pitxarra artuta, ta arin-aringa asten naz kalea gora, zeiarantza, poz eta alai. Baña, zer aurreratzen da, nire zoritxarrean ba dago, ona gaitz barik ez etortea? Ta ala yazo zan. Kalea gora niñoaiala diru a zetan obeto eralgi negiken kontuak ataraten, nire nagosiari dirua emon eutsolako Yainkoari eskerrak egiten, uste-kabeen gorpu bat ekarren zerraldoan kalea bera abade ta jenteak. Areei leku iztearren orma-ondora baztertu nintzan, eta gorpuaren atzetik yoian emakuma bat, ildakoaren emaztea bide zan, baltzez yantzia, beste emakuma batzuen artean negarrez ta deadarka iñoala:

«Nire senar yauna, nora zaroaze? Etxe illun zorigaiztokora, etxe baltz illunera, ez yan ez edan egiten ez dan etxera?». Au entzutean zerua lurragaz bat egin yatan eta esan neban:

«Nire zorigaitza! geure etxera darioie gorpu ori».

Itzi neban nire bidea, ta jente artetik zulo egiñez itzultzen naz kalea bera karraka alegiñetan etxeraño. Sartuta itxi neban atea presaka, nago-

siari laguntza-eske besarka, ta, arren, etorri euela atea gordetera. Nagosiak, beste zerbait zalakoan ikara-antzean esan eustan:

«Zer dok ori mutil, deadarka? Zergaitik ixten dok atea olako zarataz?».

«Yauna, esan neutson, beton ona, gorpu bat dakarre-ta!».

«Bai ete» erantzun eban.

«Or goien aurkitu dodaz, eta zanaren andreak iñoan: “Senar yauna, nora zaroaze?” Etxe illun baltzera, triste ta zorigaiztokora, ezer yaten ez edaten eztabenera! Emen dakarre, yauna!».

Nagosiak ori entzutean, gogo andi barik be, barreari gogoz ekin eutson, eta luzaro itzegin eziñik geratu zan. Bitartean atea morrolloa emon da neukon, eta lepoagaz eusten neutson obeto gordetearren. Igaro zan jentea gorpuagaz, eta oindiño bere, idurituakaz nengoan etxean sartuko ete euskuen. Eta yanariz baiño barre egitez beteago egoanean, esan eustan nire nagosi onak:

«Egia dok, Lazaro, alargunak iñoanez ordo pentsatu dok, baiño Yainkoak obeto egin ddok

eta ddoazak aurrera. Idiki, idiki, ta oa yateko-billa».

«Itzi egiezu, yauna, doazela aurrera kalea igaro arte», esan neutson.

Atzenik etorri zan nagosia atal-ondora ta zabaldu eban indarka, ba eban indar-bearra nire bildurra ta estualdiagatik, eta bidean ipiñi nindun. Egun atan ondo yan gendun, baiña ez eustan yanak on andirik egiten. Iru egun areetan etxatan kolorea etorri. Nagosia ostera, barreka nire burutapena gomuta-aldioro.

Olan bizi izan nintzan irugarren nagosi txiro onegaz egun batzutan, zetara etorri zan eta zer asmu eban, beti yakin guraz. Aren menbean yarri nintzanetik ezagutu neban arrotza zala, bertakoen ezaguera apurra ebalako.

Noizpait bete zan nere guraria ta yakin neban gura nebana. Ondotxu bazkaldu gendun egun batez, bera alaitxu egoala, emon eustan zituan ondasunen barri, ta Gaztela Zarrekoa zala esan eustan, eta auzoko zaldun baten aurrean kapela ez arazteagaitik bakarragaitik itzi ebala bere erria.

«Yauna, esan neutson, zalduna ba zan eta zuk baiño geiago dabena, ez al zendun oker egiten zuk aurrena ez eraztean? berak ere erazten eutsula esan dozu ta».

«Alan dok, eta ba ddok, ta berak bere erazten ioan baiña nik ainbeste bider aurrena erazten naieuan ezkeroz, etzoan gauz andia berak niri bein aurrea artzea».

«Ni enintzokek orren begira egongo, uste ddoat, batez bere ni baiño aundigoakaz eta aberatsagoakaz».

«Gaztetxua az, erantzun eustan, eta ezteusk miñik emoten izen ona galtzeak: ortan ddagok bada gaur eguneko gizon ondrauen izate guztia. Ba ddakik ni ezkutaria nokala; baiña kondea kalean topetan ba ddoat eta kapela kendu-kendu egiten ezpadau nire aurrean, barrero etortzen ba da, sartuko nok etxeen batean zeregiñen bat bai neu, edo beste kalea zear yoango nok baldin ba da, nire ondoratu baiño len, nik neurea ez eraztearren. Aitonen seme batek ezeutsok zorrik Yainkoari ta erregeari baiño; ta eztok bidezko gizona nobera ba ba, bere buruaren ardurea lipar batean iztea».

Beiñola nire errian opizial bat itsusitu ñoan eta yoten zematu ñoan, aurkitu aldioro, «Mantenga Dios a Vuesa Merced», esaten eustian-da.

Nik esan neutsoan: «I, erritar gizatxarra, zegaitik az aen gaizki-azia?». «Manténgaos Dios», esan bear deustak edonor bai nintzan.

Andik aurrera nun-nai erazten eustan kapela, ta bear dan lez itzegiten eustan.

Ta ez al da agur egite ona «Manténgaos Dios», esatea? esan neban.

«Ez zoritxarrez esan eban. Ganora gitxiko gizonai esaten yeutsek ori; baña ni lako goimallakoari etxakok esan bear gitxigorik: “Beso las manos de Vuestra merced”, edo beintzat, “bésos, señor, las manos”, itzegiten deustana zalduna ba da. Alan bada, *mantenimentuz* ok eragiten eustan nire erritar a, iñoan ikusi gura, ta etxoat nunduan parkatuko, erregez beetik “Manténgaos Dios” esaten deustan iñori».

«Ene gizagaxua, esan neban, orregaitik ezeutsok ardura Yainkoari ire bizikaiaz, iñok Ari eskatzerik ezin eroan dok eta».

«Batez bere enok aen txiroa», esan eban. Ba ddoat errian etxe-sail bat; zutunik balegoz

etxeak eta ondo landuak eta nire erritik amasei legoa bidean balegoz, Valladolid'ko aldats-kale atan, balioko leukezek berreun milla marabiri ta koska. Ba ddoat usategi bat bere, yausita ezba- lego dagoan lez, emongo leukezek urtero berreun usakume ta geiago. Ta olango beste gauz asko esan eustazan nire izen ona arren ixil- tzen dodazanak.

Etorri nintzan uri onetara egonarri ona aurki- tuko nebalakoan, baiño oker yazo yat. Kanonigu ta eleiz-gizon asko aurkitu dodaz, baiña nundu guztiak euren pausutik atarako eztabezan koko- loak dira. Erdi-merdiko zaldunak bere artu gura naue, baiña euren otsein izatea neke da. Gizon izan da karta-gaizto biurtu bearra dago olakoa- kaz; ostera «aldegizu Yainkoarren» esaten deu- tsue. Ta geienez epetan ordaintzen deutsue otsein-saria ta seguruago, yana sari-ordez.

Eta bizimodua zuzendu gura dabenean, eta iñoren izerdiak ordaindu, yipoe izerditsu bat edo kapa murriztu bat emongo deutsue. Nobera titu- ludunaren menbean yarri ezkeru, nonbait or iga- roten dau bere zoritxarra. Ez al dot nik ganorarik oneen otsein izateko? Olako bategaz topo egin-

go baneu. Yaugoikoa! bere kutuna ninduke ta ondo serbituko neuskio. Iñok beste guzur esango neuskio, ta atsegin egingo neuskio bene benetan.

Barre egiten neutson bere ataraldi ta ekan-duakaitik, munduan ziran obeenak izan ez arren. Ez esaten iñoz, miñ emon leikionik, egoki bali-tzaio bere. Zintzoa izan itzez ta egitez, beragaz. Ez estutu, berak ikusiko ez ebazan gauzak ondo ez eginda. Menpekoai agiraka egin, arek entzue-la, aren gauzetaz ardura ba neuko lez. Otsein bati agiraka egitean, neuronek zirikatu, aserrea-gotu edin, eta errudunaren alde egiña irudi egien. Ondo esan ondo egokionagaitik, eta oste-rantzean maltzurra izan; maixiotzalea izan; etxe-koekaitik eta kanpokoakaitik barritxukerian yar-dun; iñoren bizitzaz zer-atera ibili, auzoan zabal-tzeko; ta olango barregaiak erein, yauregietan eta andiki artean oi dan lez. Eztabe etxean ikusi-gura gizon presturik, gorroto deutse ta zorotzat daukoze ta ezertakotzat, eta ez dirala garatz-gizonak, eta nagosia ardurabaga egon daiteken nodukoak. Olakoekaz, mutil zuurrak, nik egingo

neukena egiten dabe, baña nere zoriak eztau gura nik aurkitzerik.

Nire nagosiak bere, tamalez kontetan eban bere zoritxarra, gertatu yakona niri eralgiz.

Onela gengozala, gizon bat eta atso bat sartu ziran atetik. Gizonak etxea eskatu eutson alogeretan, eta atsoak ogea. Itzbatu ziran bi ilabetetako ta eurretan lortu eban urte osoan lortu ez egikena. Amabi amairu erreal izan ziran. Eta erantzun ona emon eutsen: yoango zala zeiaara, biko diru bat truketan, eta arrasteian etorteko; baiña aren yoanak ez eban izan etortetik. Itzuli ziran eurak arrasteian, baiña belu. Nik esan neutsen, etzala etorri, Illuntzean etorten ez ta, ni etxean bakarrik geratzeko bildurrez, auzo-andreetara yoan nintzan eta kontatu neutsen, eta an lo egin neban.

Goizean artzedunak etorri ziran itaunka, baiña beste atera. Emakumeak erantzun eutseen.

«Emen da aren otseiña ta etxeko giltza».

Itaundu eusten beragaz, eta esan neutsen enekiala non egoan, eta etzala etorri etxera

dirua truketan yoan zanetik, eta beragaz aldegin edo ebala.

Au entzunda yoan ziran amabiaren eta iskribauaren billa. Ta ara nun datoza. Artzen dabe giltza, deitzen nabe, ta deitzen dabez testiguak, idigiten dabe atea, ta sartzen dira nire nagosiaren ondasunen baitura egiten, zorra ordaindu egian arte.

Etxe osoa arakatu eben, eta esan dodan lez utsik aurkitu eben, eta esan eusteen:

Nun dira zure nagosiaren ondasunak, aren kutxak eta orma-eunak eta etxeko bitxiak?

«Nik eztakit», erantzun neban. Iñolaz bere, esan eben eurek, gabez izkutu ta eroan ei dabez norabait. Amabi yauna, eldu eutsozu mutil oneri, onek daki nun dagoan-da.

Urreratu yatan amabia ta zama-ondotik eldu eustan, iñoala:

«Mutill, preso az, nagosiaren ondasunak agertzen ezpadozak».

Ni, neure burua sekula baiño larriago ikusita, bildurtu nintzan guztiz, eta negarrez agindu nuteson esango nebala. (Zamatik askotan eldu izan eusteen, baiña astiro, itsuari bidea erakusteko).

«Ondo da, esan eusteen. Esaik dakikan guztia, ta ez bildur izan».

Yezarri zan iskribaua arri-aulki batean, eukonaren zerrenda egiteko, zer eban itaunka.

«Yaunak, esan neban, nire nagosiak dabena, berak esan eustanez, etxe-sail bat ona, lurrera yausia, ta usategi bat, yausia a bere».

«Ondo da, esan eben. Gitxi balio ta bere, zorra zuritzeko beste ba da. Ta urian norantza dago ori?» itaundu eusteen.

«Aren errian», esan neutsen.

«Etxagok alderdi txarra, esan eben. Eta zer erri da ori?».

«Gaztela Zarrekoa zala esan eustan».

Barre egin eben gogoz amabiak eta iskribauak, iñoela: Naikoa dok ik esana, zuen zorra kobretako, andigoa balitz bere.

Alboan egozan auzo-andreak esan eben: «Yaunak, mutiko gizagaxu bat da au. Egun gitxi da ezkutariagaz bizi dala, ta eztaki aren barri, berok baiño geiago. Gizagaxoa, gure etxera dator eta yaten emoten deutsogu Yainkoarren, dogunetik, eta gabez arengana yoaten da lotarra».

Nire errugabea ikusita, nire eskuko itzi ninduen. Amabiak eta iskribauak eskatzen deutse senar-emazteai bidezko saria. Zarata andia atara eben eztabaidagaz. Eurek iñoen, etzegozala pagetan bearturik, ez egoala zegaz ordaindu, ta ez zala baikuntzarik egiten. Besteak iñoen garrantzi andigoko arazo batera yoateari itzita etorri zirala.

Atzenik, oiuan andiak egin-ostean amabiaren mutilak soñean artu eban atsoaren burusi zarbat. Ez yoian oso zamaztua. Ba yoiazan bostak oiuka. Eztakit zer yazo zan. Burusi gaixoak pagatuko eban guztien orde. Ta ondo erabilia egoan; bada, lengo lenetatik itxedon bitartean bere, algeretan ebillen.

Esan dodan lez itzi nindun irugarren nagosi gaixo ak, eta an ezagutu neban osotara nire zoritarra. Nire aurka nagosiak alegiñak eginda bere, eneban nik a itzi, beste mutilak euren nagosiakaz egin oi dabenez; berak itzi nindun ni ta, iges egin eustan.

LAUGARREN YARDUNA

**Lazarori Mercedtar
praille baten menbean
yazo yakona**

Laugarren nagosi billa ibillita, mercedko praille bat aurkitu neban, korurako ta komentu-barruan yateko gogo gitxikoa, kanpotik ibilteko amorratua; prakadunek bisitetako irrikaz betea. Komentu guztikoak baiño zapata geiago apur-tzen bide eban berak bakarrik. Onek emon eus-tazan neure bizian ausi nebazan aurrenengo zapatak. Baiña ez eusteen iraun zortzi egun. Nik bere ezin iraun izan neban geiago aren lasterke-tagaz. Augaitik, eta ixiltzen dodazan beste zer-batzukaitik, aldegin neban arengandik.

BOSKARREN YARDUNA

Lazarori

**bulda-saltzaile baten menbean
yazo yakona**

Boskarren nagosia, bulda-saltzaile ba izan neban; nik ikusi dodan eta ikusiko dodan, eta iñok ikusi daben bulda-saltzailerik nabarbenena ta lotsabakoena, iñon diran bideak eta moduak eta asmakeri zorrotzak ba, ebazan atarako.

Buldea sartu nai eban errietan, aurrena beste ezerezkeri batzuk erakusten eutsezan abadeai: Murciako ur-aza bat edo, garai zanean, limoe, laranja, mertxika, orri-gerezi, madari pare bana edo. Olan erakarten ebazan bere irabazpiderako, ta eliztarrak buldea artzera deitu zegizen.

Eskerrak omoten eutsoezanean, euren yakin-tzaren barri artzen eban. Ulertuten ez ebela autorten ba eben, ez eban itzik egiten latiñez, ez utsegitearren. Orduan gaztelera txukun, ondo ebagia eban, min labanagaz. Eta abade areik «Reverendo» zirala, au da, yakitez ez baiño diruz abade egin zirala yakiten ebanean, Santo Tomás

bai litzan, bi orduz latiñ-izketan iarduen. Alan idurian, beinzat, alan ez ba zan bere. Onez buldeak artzen ez eutsoezanean, gaiztoz arrarazoten eutsoezan. Atarako erria aspertzen eban batzuetan, eta besteetan azpikeriz iarduen. Egu-nero egiten ebazan maltzurkeriak azalduteak, luze yoko leuke ta, bat atarako dot zorrotza ta barreikaria, ze gizon argia zan erakusteko.

Toledoko Sagrako erri baten, bi edo iru egunez egon zan, oi eban lez, buldearen ontasuna adiarazoten; eta ez eutson iñok artu, ta ez artze-ko asmurik bere. Amorratuta egoan, zer egingo ote eban, eta gogoak emon eutson, erri osoa batutea biamonerako, buldea zabalduteko.

Gau atan apal-ostean, apari-ostekoa yokatzen asi ziran aguazilla ta biak. yokoan asarratu ziran eta gaizki-esaka asi. Aguazillari «lapurra» esan eutson, eta besteak ari «guzurtia». Orduan nire yaun bialduak, yoko-lekuan egoan astamakil bat artu eban. Aguazillak gerrontzeko ezpatara eroan eban eskua.

Guztion oiu ta zarata zala bide, gugana egin eben arrotzak eta auzokoak, tartean sarzen zira-la. Ta areik, guztiz asarre, erdikoekandik askatu

egin gura eben, alkar ilteko. Baiña, alango zara-ta-otsera etxea bete jente batu zan eta alkar armaz ezin zauritu ebela ikustean, iraunka asi ziran. Aguazillak nire nagosiari, guzurtia zala, ta guzur-buldeak ekazala ta iragarten ebazala.

Atzenik, erritarrak, eurekaz bake-biderik ikusten ez ta, aguazilla ostatutik beste norabait eroatea erabagi eben. Eta olan geratu zan nire nagosia, guztiz asarre. Ta arrotzak eta auzotarrak, adiskidetzeko, ta lotara yoateko esan eutsoenean, yoan zan, eta baita osterantzekoak bere.

Biamonean, nire nagosia Eleizara doa, ta kanpaiak yo-erazo ebezan mezatarako ta buldea zabaltzeko. Batu zan erria, ta marmarka iarduen guzur-buldeak zirala, ta aguazillak berak agertu ebala asarraldian. Len artzeko gogo txarra ba eukeen, orain osotara itzi eben.

Bulda-dunak igon eban arratzaldera (kurpitu-ra) ta asi eban itzaldia jenteari eragin-guraz, ain-beste ondasun eta parkapen ekarren bulda-santua artu-barik ez geratzeko.

Itzaldian beroena iarduela, sartzen da aguazilla Eleizatetik, eta otoiz laburra eginda yagi zan eta abots zoliagaz, astiro esaten asi zan zuurki.

«Gizonak entzun eustazue itz bat, gero entzungo deutsozue gura dozuenari. Ni, orrako sermoegille guzurti orregaz etorri nintzan ona. Azpitik esan eustan, lagundu negiola bizibide ontan, eta irabaziaren erdia emongo eustala. Orain dakust nire arimeari ta zuen ondasunari egingo neuskion kaltea, ta egiñaz damuturik, agertzen deutsuet, zabaltzen diarduen bulda orreik guzurrezkoak dirala, ta ez ziñisteko ta ez artzeko, eta nik ez dodala ez zuzen eta ez zear euretan zeregiñik, eta oraintxetik zigorra lurrean izten dot. Ta nozbait, guzur oneikaitik ori zigortuko balebe, izan zadize testigu, enagola orregaz, eta ezteutsodala lagunduten; ostera azaltzen dodala argi, orren gaiztakeria». Ta amaitu eban itzaldia.

An egozan gizon prestu batzuk jagi gura izan eben, eta aguazilla Eleizatetik yaurti, zaratea ixildutearren. baña nire nagosiak aren alde urten eban, eta agindu eutsen, eskomikuaren azpian,

ez galazoteko; zer-gura esaten itzi egioela. Berau ere ixilik egon zan aguazillak amaitu arte.

Ixildu zanean, nire nagosiak itandu eutson, ia beste zer-esanik bai ete eban.

Aguazillak esan eban: «Zer esanik ba dago oindiño zugaitik eta zure guzurrekaitik; baño oraingoz asko da».

Bulda-zabaltzailea balaunikatu zan kurpitan apur baten, eta zerura begira esan eban:

«Yauna, zeuri etxatzu ezer izkutu, gauza guztiak agerian dozuz. Eziñik ez da zuretzat, eta guztiak egikizun. Zuk dakizu egia, ta zein bidebagez iraundu naben. Niri dagokidanez, parke-tan deusot, zeuk bere parkatu dagidazun. Ez begira, zer egiten eta zer esaten daben eztakianari; zeuri egindako bidebagea baiño. Arren eta arren ez estaldu, zuzentasunagaitik, bada emen dagonen batek, aren itzak entzunda, bear ba da ez eban bulda santua artuko, aren guzurrak siñistuta. Eta lagun urkoari olango kaltea yator-kon ezkerro, arren, yauna, ez itzi agertu baga. Egizu mirari bat, eta au bedi: orrek diñoana egia ba da, ta nik diñodana gezurra, kurpitu au lurre-ra bedi, ta ondatu bedi nagaz zazpi giza-bete,

egundo andik atarako enazan moduan. Eta diño-dana egia ba da, ta orrek oker ba diño, deabruak eraginda, emen dagozanai olango ondasuna galazotearren, zigortua izan bedi ori bere, guziok ikusi dagikeen moduan».

Nire nagosi yainkotiak otoitza amaitu ebane-ko, aguazil baltza yausi egin zan lurrera, egoan tokian, eta artu eban kolpeagaz, Eleiza guztian atara eban egundoko zarata. Asi zan orruka ta bitsa eriola, agoa okertuz eta kiñuka ta siñuka, eskukadaka ta ostikadaka ara ta ona lurrean iraulten zala.

Jentearan oiua ta iskanbillaz ez eban alkar entzuten. Zenbait, ikara lauorrian egozan. Batzuk iñoen: «Yaunak lagundu begio». Beste batzuk: Ondo irabazia dauko guzur-testigu izan da ta.

Atzenik, an egozan batzuk, «naiko bildurragaz» urreratu yakozan eta eldu eutsoen besoe-tatik. Berak albokoai ukabilkada onak emoten eutsezan. Beste batzuk anketatik eldu eutsoen gogor, alako mando billau ostikolaririk munduan ez da azaldu-ta. Olan euki eben luzaro. Amabost gizon baiño geiago ba egozan aren ganetik eta

guztiei eskuak bete lan emoten eutsen, eta ernai ezpaegozan, ezpanetan.

Bitartean, nire nagosi yauna kurpituan egoan belaunika, esku-begiak zerurantz, Yainkoaren izatean murgildurik. Eleizako zarata andia ta negarra ta oiua etziran gai a Jainkoa ikustetik bereizteko.

Gizon prestu areik urreratu yakozan eta oiuka iratzarri eben eta eskatu eutsoen, arren, ilten egoan gaixo ari laguntz emoteko, ta ez yaramon egiteko yazorikoai, ta aren txarto esanai, ordaiña artu ebala ta; baiña iñola bere alba eban, atara egiala zoritxar eta oñaze areitatik; ondo ikusirik eukiela aren errua ta beraren egia ta ontasuna, ta bera zala bide etzala yauna luzatu zigorra emoten.

Bulda-saltzaile yaunak, lo gozo batetik iratzarri bailitzan, begiratu eutsen areei ta errudunari, ta inguruan egozanai esan eutsen astiro astiro.

«Gizonak, etzeunkie otoitz egin bear Yainkoak aen argi ta garbi zigortu daben orren alde; baiña, gaizto orde gaiztakeria ez ordaintzeko, ta iraunak parketako agintzen deuskun ezker, uste onez eskatu dagiogun agintzen deuskuna

betetako, ta Yainkoak parka begio fede santuari oztopo ipiñi deutson oni. Eskatu dagiogun guztiok».

Orduan yatsi zan kurpitudik eta agindu eutsen otoitz egin egioela gogoz Yainkoari parka egiola pekatari ari ta osasuna ta sena biurtu egiozala ta deabrua yaurti egiola, alako pekatua-gaitik aren barruan sartzen itzi ba eutson.

Belaunikatu ziran guztiak, eta altara-aurrean asi ziran abadeakaz letania ixil-antza esaten. Eta nagosia kurutze ta ur bedeikatuagaz etorri zan, eta gaixoaren ganean kantatu-ostean beso-begiak zerurantza, begiak oso iraulirik txuri apur bat baino ageri ez ebala, asi eban otoiz luze ta samur bat. Jente guztiari negar eragin eutson, pasiñoko itzaldietan egin oi danez, sermoelaria ta entzuleak yainkotiak diranean. Eskatu eutson Yaunari, pekatariaren eriotza ez baiño, bizitza ta damua nai ebazan ezkerro, barka egiola deabruak artuari, ta bizitza ta osasuna emon egiozala, damutu ta autortu edin.

Au eginda ekarriazo eban buldea ta buruan ipini eutson. Ain sarri aguazil gizagajoa asi zan obatuten eta astiro bereganatzen. Eta kordea

osotara etorri yakonean, yausi zan buldatzailearen oiñetara, ta parka-eske asi yakon, eta autoritu eban, deabruaren agoz esan ebala, batetik, ari kalte egitearren eta apendua artzearren; bestetik, eta batez bere, deabruak damu artu egian, buldeak au egingo eban mesedeagaz.

Nire nagosi yaunak parkatu eutson eta adiskidetu ziran biak. Eta buldea artzera egundoko presaz asi ziran senar-emazte seme-alaba, neska-mutil, arimarik geratu baga.

Zabaldu zan yazokun au auzo-errietan, eta ara giñoiazanean etzan sermoe bearrik, ez Elizara yoan bearrik: ostatura bulda-eske, dubarik emoniko madariak bai liran. Onelan, amar amabi auzo-errietan saldu ebazan nire nagosiak millaka, sermoe barik.

Itxura ori egin ebanean, neu bere ikaratu nintzan eta egitzat artu neban beste askok lez; baiña nagusi-aguazillen alkarrekiko irri-barrea ikustean, orduan ezagutu neban nire nagosiaren buru zolia bizibiderako.

Gaztetxua izan arren, barre-gura andia emon eustan eta esan eban nire artean:

Zenbat olako egiten ei dabe jente gaixoaren lepotik, guzurti oneik!

Amaitzeko, lau ilabetetsu egon nintzan boskarren nagosi onegaz, naiko lan igaroten nebala.

SEIGARREN YARDUNA

Lazarori

Kapillau baten menbean yazo yakona

Onen urrena arrazko edo panderu-pintatzaile bategaz itzbatu nintzan, ari koloregaiak apurtzeko. Amaika ikusi neban onegaz bere.

Ordurako azitxua nintzan-da, bein Eleiznagosian sartu nintzala, ango kapillau batek beretzat artu nindun.

Lau asto, euren ur-zubillakaz eta zigor bat emon eustazan nire mende, ta urian ur-saltzen asi nintzan. Au izan zan ni bizitza onera igoteko lenen-mailla, agoa neurritzkoa neban da. Egunero ogetamar marabiri emoten neutsozan nago-siari, irabazitik, eta larunbatean niretzat irabazten neban, eta osterantzean aste-egunekoa ogetamar marabiri.

Bizibide ontan, lau urtegarreneko diru-mordo bat aurreratu neban, yauntzi zarretik ondotxo yauzten nintzala. Erosi nebazan algodoe zarrezko jipoe bat, eta soñeko murriztu bat, beso edegi

ta eskuzuloagaz, kapa igortzi bat, eta Cuellarko
ezpata zar areetako bat. Neure burua gizon gisa-
ko ikusi nebanean, nagosiari astoa artu egiela
esan neutson, enebala aurrera yarraitu gura bizi-
bide a ta.

ZAZPIGARREN YARDUNA

Lazaro

zori onaren gandorrear

Neure burua ornidutxuago ikusi nebanetik, Salamanka-errira itzultzea erabagi neban, Tormes ibai-ertzera, yaio nintzan tokira. Yainkoak argi egin eustan, eta bide obean ipiñi ninduan, itsu kaskar-autsia nik argi-mutil-aurrean ipiñi neban baiño. Alango zorionik eneiken gura, ez amestu bere. Nok esan, nik isekaz osaba neritxon itsu gaizto a egizko osaba izango nebanik, eta ago betean gizagaxua beti betiko esango neutsonik?

Olan yazo zan. Salamankan zear niñoiala, itsu zoliak totalkeritik atara nindun uri atan, egun batzukaz ostatu batera batu nintzan, eta an izan neban, itsuaren loba bat urian egoalako entzutea. Nire irakasle itsua zikoitz utsa zala esan bai gendun, kaltzerdi batzuen barruan dirutza andia itzita yoan ei zan mundu ontatik. Aurreragokorik ez ta, loba au egin eban zorioneko dirutzaren yaube. Alkar-ikustea egin gendun,

eta itandu neutson itsuaren amaia zertzelada guztiekaz, eta neuk yalgi neutsozan egundoko ipuinak osaba zanaz. Atsegin artu edo eban nitaz, pitxarkadeaz ezaindutako aurpegi au arren, eta neuk bere atsegin artu neban aren aurpegi eder ederraz ezpada bere, gomutan neukozan urre-dobloeenaz.

Ezkondu giñan, eta Lazaro zoriontsu bizi da bere eukiteaz, eta auzotarrak esaten deutsoe, beiñola nagosi aiton- seme ak beretzako gura eban lez. Eskaleak nire atea yoten dabienean, eskua zabal zabal agertzen deutset, lenagoko bizibideko izerdi-nekeen gomutaz. Aen gitxitatik igon neban zori onaren gandorrera.